

## DATORRENA

Sinboloak: koloretako lazoak eta  
zapatilen sutzarra **IÑAKI SOTO > 3**

## ASTEARI ZEHARKA BEGIRA

Urteurren bat baino gehiago

**IÑAKI ALTUNA > 11**

2018ko irailaren 8a | XII. urtea • 585. zenbakia  
0,50 euro

# GAUR8

mila leiho zabalik  
[www.gaur8.info](http://www.gaur8.info)



## ZER EGIN ARTILEAREKIN?

ARDI LATXAREN ESNEA DIRU ITURRIA DA ARTZAINENTZAT; ARTILEA, BERRIZ, GAUR EGUN, GASTUA. LATXA ESNE KOOPERATIBAK ETA SEKTOREKO ELKARTEEK IRTEERA EMAN NAHI DIOTE, ETA HARTARAKO ATE BATZUK SUMATU DITUZTE. **> 12** Jon URBE | FOKU



**Japoniar asko, Fukushima-aren orria pasatzeko presaren aurka** 04

**Trumpen uda gorria** 07

**Bulgariako psikiatrikoak, nekez bizitzeko modukoak** 08

**Ardi latxaren ileari irtenbidea emateko proiektua** 12


**Mikel Martinez tabernan, atzekoz aurrera** 18

**E.lkarrizketa: Mikel Taberna** 22

**Joko areto baten eragina ikertu dute Judimendiko gazteek** 25

**In fraganti: Jokin Espilla** 27

**Juantxo Egañaren behatxulotik** 31



## SINADURAK:

03 **Iñaki Soto:** Koloretako lazoak eta zapatilen sutzarra

10 **Saioa Aginako:** «Wabi-sabi»

11 **Iñaki Altuna:** Urteurren bat baino gehiago

15 **Antton Izagirre:** Galeuska

15 **Miren Azkarate:** Ibilian

16 **EXPRAI**

20 **Arantxa Urbe:** Bejondeizuela, Seaska!

21 **Nerea Ibarzabal:** Errailariak eta burutsuak

30 **Maite Oronoz:** Informatika eta formazio transbertsala



{ datorrena } Iñaki Soto

# Sinboloak: koloretako lazoak eta zapatilen sutzarra

Sinboloek garrantzi itzela dute politikan eta, ondorioz, sarri gatazka politikoak eremu horretan garatzen dira. Hori guda beste bitarteko batzuen bidez garatzea ere bada. Printzipioz, sinboloena ez da gatazka politikoaren esparru natural edo zentrala, baina gatazka baten adierazle izan daiteke. Azkenaldion, udatik nabarmenago, Katalunian lazo horien inguruan piztu den gatazka horren adibide garbia da. Ez da, ordea, uneotan zentzu horretan ematen ari den gatazka bakarra. Horregatik, ikuspegia zabaltzea lagungarri izan daitekeela uste dut.

Colin Kaepernick-aren auzia, adibidez, bete-betean sartzen da gatazka sinbolikoen kategorian. Kaepernick futbol amerikarreko jokalaria da. Diotenez, oso ona zen eta etorkizun handia zuen, politikoki nabarmendu zen arte. Partidak hasi aurretik AEBetako ereserkia entzuten zenean belauniko jartzen hasi zen, beltzek jasaten duten jazarpena eta bazterkeria salatzen. Trumpek jarrera hori antiamerikartzat jo zuen eta neurriak eskatu zituen. Bere taldeak eta hango ligak, NFL delakoak, jokalaria baztertu egin zuten. Orduetik hona ezin izan du jokatu. Kaepernickek NFL auzitara eraman du, talde guztien artean bera baztertua adostu omen zutelako. Trumpen desioei men eginez, aurtun NFLk horrelako keinuak egitea debekatu du eta zigorrak ezarri ditu aldarrikapenak egiten dituzten jokalariei aurka. Futbol jokariaren bazterketak elkartzun handia piztu du, txima-luzea sinbolo bihurtzeraino. Aldi berean, ordea, bere aurkako zigorrak bere kideen artean beldurra ere zabaltzen du.

Aste honetan jakin denez, Nike zapatila eta kirol jantzi enpresak Kaepernick bere kanpaina baten protagonista bihurtzea erabaki du. Erabaki horren lehendabiziko efektuak zitalak izan dira. Alde batetik, Nike etxearen akzioek behera egin dute, nabarmen behera, gainera. Beste aldetik, enpresaren aurkako kanpaina bat piztu da sare

sozialetan. Zintzilikatu dituzten bideoetan, WASP delakoak –hau da, estatubatuar zuri, anglosaxoi eta protestanteak– galtzerdietatik Nike enpresaren logotipoa guraizeekin moztu edo zapatilak erretzen ikus daitezke. [Aipamen labur bat, nire kintakoentzat: bideoak ikustea bitxia da guretzat, aspaldi Ipar Euskal Herrian hedatu zen “Nique la Police” kanpaina gogoratzen digulako (<https://bit.ly/2oNajdM>), logoa erabiltzen zuena].

Enpresa kapitalista global batek askatasunaren aldeko sinbolo bat bereganatzea beti pizten du polemika gure artean. Batzuentzat jabetze sinboliko horretan sistemaren zitalkeria nabarmentzen da. Besteentzat, sistemak sinboloak bereganatu nahi izatea garaipen mugatu eta partziala da eta hein batean positiboa da. Irakurketa biak zentzudunak iruditzen zaizkit niri.

Kaepernick-aren kanpaina dela medio, sare sozialetan zintzilikatu dituzten bideoetan, WASP delakoak galtzerdietatik Nike enpresaren logotipoa guraizeekin moztu edo zapatilak erretzen ikus daitezke

Edonola ere, Kaepernick-aren kasuan bere jarrera askatasunaren eta duintasunaren sinbolo bihurtu da. Haren arerioak Trumpekin lotura zuzena dute, eta, ondorioz, honen balioen transferentzia bat ematen da.

Kataluniaren auzian lazoen gatazkak zalantza gehiago eragiten dizkit. Jakina, ez ados ez nagoelako, baizik eta gatazka irabazten edo galtzen ari diren argi ez dudalako. Jatorrian, askatasunaren sinbolo direla argi dago –lazoak, gurutzeak erabiltzea akatsa dela uste baitut–, baina bilakaera honetan gatazkaren sinbolo ere bihurtzen ari dira, gatazka bera desitxuratzearaino. Agian, nire zalantzen parte bat lazo urdinen aroa gogoratzen didalako da. Hartan, beraiek ez zuten irabazi, baina gu galdu ginen. •



# FUKUSHIMA

## Orria pasatzeko Japoniako Gobernuaren presak kontrako jarrera eragin du

**A**buztuaren hasieran jarri zuten Japoniako Fukushima hirian Sun Child izeneko estatua, eta «lehenbailehen kenduko» dute, Hiroshi Kohata alkateak jakinarazi duenez. 2011ko martxoko lurrikara, tsunamia eta istripu nuklearra atzean geratzen ari direla adierazi nahi zuen artelanak baina zatiketa besterik ez du eragin, eta azkenean udal agintariekin atzera egitea erabaki dute. Herriarren kontrako iritziek agintarien erabakia aldatzea lortu dute beste behin.

«Berreraikuntzaren ikurra izan behar zuen estatua ikusgai edukitzea ezinezko iruditu zitzaidan herritarrek gai horrekiko zatituta baldin badaude», esplikatu zuen Hiroshi Kohata alkateak. Plazaratu zuen agirian barkamena eskatu zien lanak min egin dien herritar guztiei.

Sei metroko altuera duen estatua abuztuaren hasieran inauguratu zuten. Ume bat da obraren protagonista eta erradioaktibitatearen aurkako jantzi bat darama; kaskoa esku batean, airea dagoeneko garbi dagoela adierazi nahian; eta eguzki bat bestean, itxaropenaren ikur moduan. Jantziaren aurreko aldean, pantaila bat “ooo” zenbakiekin, erradioaktibitatearen ez dagoela nabarmentzeko.

Interneten erabiltzaile batek baino gehiagok esan zuen estatua ez zela egokia, asmo gaiztokoa zirudiela, eta Fukushima izena berreskuratzeko bidean ez duela batere lagunduko. «Sun Child ikusi dut eta beldurra ematen duela esan behar da. Herritar guztiok barregarri uzten gaitu. Fukushima bere irudi txarra

 **JENDARTEA** / joseangel.oria@gaur8.info

Marrazki bizidunetatik ateratako zerbait dirudi Sun Child estatuak. Egileak itxaropena transmititu nahi zuen, istripu nuklearra eta gero Fukushima normaltasunera itzultzen ari dela, baina egoera zein den ezagutzen duten herritarrei ez zaie batere gustatu: batzuei, beldurra ematen dielako; eta besteei, gezurretan ari delako.

garbitzeko egin duen lana ere barregarri utzi du», idatzi zuen bere Twitterreko kontuan herritar batek. «Fukushimak duen fama txarrarekin, ego-kiena instalazio hori ezabatzea izango litzateke», idatzi zuen beste batek.

Mizue Kanno bere etxeko lorategira begira, aurpegian maskara daramala, lankide bat erradioaktibitatea neurtzen ari den bitartean.  
GREENPEACE

Kenji Yanobe egileak jakinarazi du bere asmoa mezu positibo bat plazaratzea zela. «Etorkizunerako itxaropen dirdiratsua erakustea zen nire asmoa, zerura begira ageri den begi handiko ume horren bitartez», idatzi zuen bere webgunean estatuak polemika eragin zuela jakin zuenean. Hiru orrialde bete zituen orain aste batzuk, bere lanaren inguruko esplikazioak emanez. Estatua kentzeko erabakia deitoratu egin du orain, baina nahiago du horrela izatea, bere lana eztabaidaren erdian edukitzea baino.

Jantziaren aurreko aldean, pantaila batek “ooo” zenbakiak erakusten ditu, erradioaktibitatearen ez dagoela esanez. Baina hori egia bihurtzetik oso







urruti dago oraindik ere, Greenpeace talde ekologistak egin dituen neurketen arabera. Mizue Kannori Fukushimako herritarren laguntzarekin kalte-tu askorekin hitz egiteko aukera izan zuten. Mizue Kannori berari, bere familiari eta milaka laguni erabat aldatu zaie bizitza istripu nuklearren eraginez.

Kazue Suzukik eta Shaun Burniek sinatutako artikuluan makina bat etxe, baso eta so-roetan egindako neurketen berri eman zuen Greenpeacek. Ondorioa, oso garbia: hamar-kadak beharko dira gizakiak Namie eremu menditsura itzultzeko moduko erradiazio

mailak izan arte. «Baina gu Namien ikertzen ari ginen bitartean, Gobernuak errepide nagusi bat zabaldu zuen bertan, 114 bidea», salatu dute ekologistek. Errepide horren eraginez, jendea autoarekin pasatzean geratu egiten da eta bada sekulako erradiazio maila duten tokiak bisitatzen duenik ere.

Namieko etxe batetik metro batera 11 mikrosievert orduko neurtu zituzten, eta, 10 zentimetro-ra, 137, «hau da, istripu nuklearra izan aurretik zuten maila baino milaka aldiz gehiago». Etxe horren kanpoko aldean egonda, sei eguntan gizaki baten gorputzak ur-

Ume bat da obraren protagonista eta erradioaktibitatearen aurkako traje bat darama. Jantziaren aurreko aldean pantaila bat ageri da «000» zenbakiekin, erradioaktibitate ez dagoela nabarmentzeko.  
AFP

te osorako gomendatutako mikrosievert kopurua hartuko luke, «hala ere, bi lagun lanean ari ziren etxetik hamar metro-ra, dosimetrorik gabe eta erradioaktibitatearen aurkako jantzirik gabe. Kanno andereak eta gure adituek azaldu zieten horrenbesteko erradiazio mailarekin beharrezkoa zela babes neurriak hartzea».

#### HONDARTZAK ETA HORMAK

Obori izeneko lekuan ere egin zituzten neurketak Greenpeacekoek. Aurkitu zuten mailaren arabera, langile batek 1.000 mikrosievert hartuko lituzke hamar egun lanean bertan eginda. «Eremu osoak

dauzka erradioaktibitate maila handiak, hemendik ehun urtera ere mehatxu izango direnak. Nola pentsa dezake Gobernuak eremu hau 2023an zabaltzeko moduan egongo dela? Eta garrantzitsuagoa dena, zergatik?».

Erantzuna erraza da, artikularen egileek beraiek esan dutenez: Japoniako Gobernuak kosta ahala kosta zabaldu nahi ditu errektore nuklearrak (ia guztiak geldirik daude oraindik) eta, noski, kutsaduraren eraginez herrialdean gizakientzako itxita dauden eremu zabalak edukitzea oztopo ikaragarria da agintarien anbizio nuklearrentzat,





energia nuklearrak dituen arrisku eta ondorioen etengabeko oroigarria baita.

Anbizio berak bultzatuta, nolabaiteko normaltasuna agertu nahian, uztailaren bukaeran Haragamaobamako hondartza zabaldu zuten agintariek, istripua izan zuen zentraletik 40ren bat kilometrora dagoen lekua. Bertako ardura-dunek esan zuten aspaldiko neurketetan ez dutela erradio-aktibitatearik atzeman, baina itxita eduki zutela erabiltzaile-entzako ekipamenduak behar bezala jarri arte.

Hondartzetako erabiltzaileen arazo nagusia, kutsadura atomikoa izan beharrean, tsunamiak izango balira bezala, fenomeno horri aurre egiteko horma erraldoi bat eraikitze

proiektua egin zuten: 12,5 metroko altuera, 400 kilometroko luzera eta 7.000 milioi dolarreko aurrekontua. Batzuek horma hori itsasertzean edukitzea beharrezkotzat jotzen dute, baina beste batzuek uste dute arrantzaleei kalte egingo diola, eta paisaia ere aldatu egiten duela. Gainera, horma

**Interneten erabiltzaile batek baino gehiagok esan zuten estatua ez zela egokia, asmo gaiztokoa zirudiela, eta Fukushima-aren izena berreskuratzeko bidean ez duela lagunduko**

**«Etorkizunerako itxaropen dirdiratsua erakustea zen nire asmoa, zerura begira ageriden begi handiko ume horren bitartez», idatzi zuten estatuaren egileak bere webgunean**

Isiltasuna da nagusi kutsadura gehien dagoen lekuetan, eremua garbitzeko asmotan bertan lanean ari diren milaka langileak ekartzen dituzten autobusak iristen diren arte.

AFP

erraldoiak beste arazo bat eragiten du, Akie Abe egungo lehen ministro kontserbadorearen emazteak berak onartu izan duenez: horma hor dela jakinda, herritar askok tsunami oharrei kasurik ez egiteko tentazioa izan dezakete, konponbidea tragediaren oinarri bihurtuz.

«Gauzarik seguruena etxebizitzak eremu garaiagoetan eraikitzea da, eta etxeak eta lanpostuak leku berean ez egotea. Hori eginez gero, ez dugu horma erraldoiaren beharrik», adierazi izan du Tsuneaki Iguchi tsunamiak uraren azpian utzi zuten Iwanuma hiriko alkateak.

Fudai eta Kamaishi herrietan hormak eta tsunamiak menderatzeko beste mekanis-

moak jarri zituzten abian, hain markada askotako lanaren ondorioz. Lehen kasuan eragin-garria izan zen horma, baina bigarrenaren ez, eta Kamaishi inolako babesik gabe geratu zen behar gehien zuenean.

**«GARRANTZITSUENA, BIZITZA»**

Horrenbeste lurrikara eta tsunami izaten dituen herrialdean, makroproiektuak kaltegarriak izan daitezke. Bertako herritarrek badakite hori. Rikuzentakata itsasertzean dago. Takeshi Konno alkateak oso argi du: «Edozer gauza sortuta ere, natura garaile aterako da beti. Horregatik gizakiok naturarekin bizitzen ikasi behar dugu, eta arriskua dagoenean ihes egin. Garrantzitsuena bizitza salbatzea da».





NICHOLAS KAMM | AFP



## IKUSMIRA

# TRUMPEN UDA GORRIA

Ameriketako Estatu Batuetako presidentek ez du segur aski aurtengo uda beroa sekula ahaztuko. Ekainaren bukaeran, iruzur fiskalagatik auzipean den bere hauteskunde kanpainako buru ohiak, Paul Manafortek, onartu egin zuen 17 milioi dolar jaso zituela errusiar zalea den Ukrainiako alderdi politiko baten eskutik. Horrela bada, jakitera eman gabe atzerriko alderdi politiko batentzat aholkularitza lanak egin zituela onartzeaz gain, "Russiagate auzia" berrindartu zuen. Abuztuan, Trumpen abokatuak egungo Etxe Zuriaren maizterrearekin harreman sexualak izan omen zituzten bi emakumeri isilik egoteko ordaindu ziela onartu zuen, soka apurtxo bat gehiago estutuz. Azken kolpea irailean bertan heldu da: «goi kargu batek» egunkarian argitaratu duen eskutitza, Trump bera estu lotu behar den «ero oldartsu» gisa aurkezten duena. Uda luze egiten ari zaio Trumpi, azaroaren 6ko legegintzaldi erdiko hauteskundeetan zain. Hori bai, ikusiko beharko da ez ote zaien motzegi egingo Trumpen porrotaz ziur daudenei, azaroan ez bada bi urte barru... Dabid LAZKANOITURBURU



# BULGARIA

## Zer eginik ez daukatela, nekez bizi dira ospitale psikiatrikoetako pazienteak

**K**uriloko ospitale psikiatrikoan ehunen bat lagun nekez bizi dira. Sofia Bulgariako hiriburua inguratzen duten mendixken artean kokatuta dago zentroa, gaur egun hondakinez beteta dauden instalazioetan. Bakartuta daude, beharrezkoa duten zaintzarik gabe, gizarteak erabat ahaztuta... Aro komunistan bezala daude, tankerako baldintzetan, Bulgariako gaixo mentalak.

Drozdstoy Stoyanov irakaslea Osasun Ministerioak izendatutako aholkularietako bat da. Bere iritziz, egoera horren arrazoiak oso garbi daude, tamalez: garai batean sobietar blokean zeuden herrialdeen artean, Bulgaria da zaintza psikiatrikoen zerbitzua erreformatu ez duen bakarra.


Gobernuak Europako Psikiatria Elkarteak gonbidatu zuen Kurilora bertako egoera azter zezan. Ikuskari lanak egiteko enkargatu zioten elkarteari eta adituek ikusi zutena psikiatriaren joera modernoetatik oso urruti dago, argi-urteetara.

Azken garapen horiek gizar-tean integratuta dauden egitura askotara iritsi dira, baina Kuriloko pazienteengana ez. Eguna zer egin ez dakitela pasatzen dute, asper-asper egin da. «Ikaragarri arriskutsua da, osasun fisiko zein mentalerako, orduak ezer egin gabe pasatzea», esan dio AFP agentziari Silvana Galderisi elkarteko presidenteak. Bulgariako Gobernuari neurriak hartzeko eskatu dio aditu italiarrak.

Kurilo ez da salbuespen bat. Aro komunistan sortu zituzten herrialdeko ospitale psikiatriko gehienak eta gaur egun 3.000 pertsona inguru

 **JENDARTEA** / Vessela SERGUEVA (AFP)

Nahikoa baliabide ekonomiko ez izatearen eraginez, Bulgariako erietxe psikiatrikoetara ez dira oraindik iritsi tratamendu eta joera modernoak. Martxa honetan, ez dira iritsiko ere, agintariei modernizazioa bultzatzeko inolako borondate politikorik ez baitzaie ikusten. Egungo inbertsioa laukoiztu egin beharko lukete, beste herrialdeen pare jarri ahal izateko.



bizi dira leku horietan, baztertuta eta beharrezkoak dituzten baliabiderik gabe. Garai hartako propagandak gizarte dirdiratsu bat aurkeztu nahi zuen, eta gaixo mentalen irudiak ez zuen batere laguntzen. Hobe errealitate hori ezkutatuta eduki.

«Paziente hauek botikak, psikoterapia eta berreziketa behar dituzte beren bizitzak berreskuratzeko, baina hain beharrezkoak dituzten zaintza horiek gabe egon behar dute», esan du Galderisik.

Kuriloko instalazioak ospitale izan aurretik biltegi izan ziren. Udan, labea; neguan, hozkailua. Hogei laguneko, bi komun besterik ez. Pazientearena beste inorena ez den leku bakarra metalezko ohea da. Hori bai, ondoan parke berde bat dauka, «baina horrek, besterik gabe, ez du eskizofrenia sendatzen», Tsvetoslava Galabova zentroko zuzendariak gogorarazi duenez.

Egoerak, gainera, atzera egin du makina bat arlotan. Garrantzitsuena, seguru asko, pazienteei lan egiteko aukera eskaintzen zien landetxe publikoa itxi izana izango da. Merkatu librearen erasoek hankaz gora bota zuten eta gaixoez ordura arte zuten jarduera sendagarri bakarra galdu egin zuten.

### PSIKIATREN SOLDATAK

Baliabiderik eza bazter guztietan sumatzen da, baita soldatetan ere: psikiatra batek hilean 450 euro kobratzen ditu; eta erizain batek, 250. Herrialdeko 500 euroko batez beste soldata baino gutxiago da psikiatrek jasotzen dutena. Eta Bulgariako soldatak dira Europar Batasuneko txikienak.

«Ez dauzkat 630 lev (316 euro inguru) pazienteak birgizar-





teratzeaz arduratuko den gizarzte laguntzaile bat kontratatzeke», esan du, haserre, Maya Stoimenova Pleven iparraldeko hiriko klinika psikiatriko unibertsitarioko zuzendariak. «Barregarria eta burugabea» da esku artean utzi dioten aurrekontua.

Gobernuak aurtan abian jarri duen egitasmo baten arabera, zenbait establezimendu itxi egingo dira datozen hiru urteetan, eta eguneko zentroak sortu nahi dituzte, teorien pazienteak gizarztean hobeto integratu daitezen.

Baina jendartean hain onartuak dauden aurreiritziak ezaabatzea ez da hain erraza izaten. «Oso hedatuta dago gizarztean estigmatizazio joera, baita medikuen artean ere», Drozdstoy Stoyanoven arabera. Esaterako, Valentin Rdev

Europako Psikiatria Elkarteko ordezkariak Kuriloko ospitale psikiatrikoa bisitatu berri dute. Ez zaie batere gustatu bertan ikusi dutena.  
Nikolay DOYCHINOV | AFP

Barne ministroak duela gutxi, guraso-hiltze kasu baten harira esan zuenez, «gaixo mentalak giltzapean eta zainduta egon beharko lukete». Aurreiritzi horiek ez dira komenigarriak gaixoentzat, jakina!

Nazio Batuen Erakundeko torturaren aurkako batzordeak iaz zentro psikiatriko horietako baldintzak salatu bazituen ere, familia askok leku horietara jo beste erremedio-

rik ez dute, bestelako harrera zentroak eraiki eta abian jarri arte bederen.

Gainera, itxarote-zerrendak ikaragarriak izaten dira egonaldi luzeko zentroetan. Beraz, ehunka pazientek ospitale zaharrean bizitzen jarraitu behar dute, etxera itzuli ezinik baitaude.

«Eraiketa bat egin zuen paziente eskizofreniko bat daukat nire ospitalean bizitzen; 23

urte dagoeneko», esplikatu du Kuriloko zuzendariak.

Europako Psikiatria Elkartek egin duen irakurketaren arabera, Bulgariak beste herrialdeen pare jarri nahi badu, bere osasun aurrekontuetako %10 psikiatriarentzat gorde beharko luke, egungo %1 eta %3 bitartetik pasata. Horretarako, Galderisiren iritziz, «sekulako garrantzia dauka borondate politikoak».

Baina giroa ez dago horretarako. «Ospitalea Sofia hiriburura eramateko eskaera egin genuen, zentroa hirian integratuta egon zedin, baina alkatetako esan zigun gaiari buruzko erreferendum bat antolatzea ezinbestekoa zela», esan du etsipen hasperen artean Kuriloko zuzendariak. Proiektua, besterik gabe, gai-zerrendatik desagertu egin zen.

**«Paziente hauek botikak, psikoterapia eta berreziketa behar dituzte beren bizitzak berreskuratzeko, baina hain beharrezkoak dituzten zaintza horiek gabe egon behar dute»**

**«Ospitalea Sofiara eramateko eskaera egin genuen, zentroa hirian integratuta egon zedin, baina alkatetako esan zigun gaiari buruzko erreferendum bat antolatzea ezinbestekoa zela»**





**Saioa Aginako Lamarain**  
Psikoterapeuta

## «Wabi-sabi»

**W**abi-sabi» Japoniatik datorren zen kontzeptua da, inperfekzioan edertasuna ikusteko gaitasuna aipatzen duena. Be-

re jatorrian, *wabi* hitzak naturan, gizartetik urrun eta bakartasunean bizitzearen esanahia hartzen zuen, eta, bestetik, *sabi* hitzak, hotza, mehea edo ihartua esan nahi zuen. Baina bi hitzok, bata bestearen atzetik idazterakoan, esanahi berri bat osatu zuten, hasierako esaldian aipaturikoa alegia.

Daisetsu T. Suzuki filosofo japoniarak, Mendebaldean zen espiritualtasuna zabaldu zuenak, hala zioen: «*Wabi* da, bi edo hiru tatamiko geladun etxola txiki batean bizi eta ondoko soroetan bildutako barazki plater batekin kontent egotea, eta, akaso, udaberriko euri leunaren soinua entzutea ere bai».

*Wabi-sabi*, bizitza-filosofiaz gain, korronte estetikoa ere bada, eta interesa piztu du Mendebaldeko zenbait egile garaikiderengan. Hala, kontzeptua gure kulturara egokitu dute, honela moldatuz: «Egiazkoa dena landu ezazu, hiru errealitate onartuz: dena dago osatu gabe, dena da ez-perfektua eta dena da iraungikorra».

**Gutxitan izaten dugu gogobetetasun osoa izatearen sentipena. Behintzat, Mendebaldean daukagun «oso» kontzeptuarena. Mundua behar faltsuz osatu eta itxurati bihurtu dugu; garen pertsonak osatzen duen engranajea, zatiren bat falta zaigula sentitzen dugu, eta, horrek, dagoeneko izan baditugun zatien gaineko arreta kentzen digu.**

Faltan sumatzen dugun zati hori, zoriontasuna lortzeko falta zaigun azken eta ezinbesteko zatizat daukagu. Guztiok, noizbait sentitu izan ditu-

gun hutsune horiek, gure ongizate praktiketan traba iraunkorra dira. Hutsune sentipenak hezi gaituen kultura eta hezkuntzaren emaitza dira: geroz eta gauza gehiagoren jabe izan, orduan eta zoriontsuagoak izango gara. Ikasi behar duguna honakoa da: kanpotik eskuratzen dugun ezerk ez du gure egoera emozionala bat ala bestea izateko behar besteko ahalmenik. Inor ez da zoriontsuago gauza berriak eskuratu eta gero; gutxienez, epe luzera ez du funtzionatzen.

Perfekzionismoa bilatzerakoan ezer ez zaigu nahikoa iruditzen. Zerbaitekin pozik egotea kostatzen zaigu. Gurekiko dugun eskakizun maila gehiegizkoa baita, beti hobeto egitera bultzatzen dugulako gure burua. Hori dela eta, perfekzionismoa ez da, guk uste bezala, hoberenaren bilaketa, baizik eta, alderantziz, gure ahulezien atzetik ibiltzea da. Hau da, egiten eta lortzen duguna sekula ez dela nahikoa izango dioen pentsamendua indartzea da. Perfekzionismoak bizitzarekiko jarra malguago, lasaiago eta errealistago bat izatea galarazten du.

Denboraren kontzeptua ere agerikoa da gure bizitzetan. Adibidez, kontziente gara gure eta maite ditugun pertsonen bizitza amaikorra dela. Hala eta guztiz ere, denbora amaigabea izango balitz bezala jokatzeko dugu, egunerokotasunean momentuak, ekintzak eta harremanak atzeratuz.

**Laburbilduz, mundu konplexu, kaotiko eta mugatu batean bizi garela onartzeko gaitasuna izatea, eta, hala eta guztiz ere, zorionezko momentuak izatea, ezinbestekoa da bizitzaz gozatzeko.** Bizitzearen egin-tzak berak suposatzen duen galerari aurrea hartu gabe. •



«Wabi», akaso, udaberriko euri leunaren soinua entzutea da.



{ asteari zeharka begira } Iñaki Altuna

# Urteurren bat baino gehiago

Urriaren 1eko Kataluniako erreferenduma-  
ren urteurrena dela-eta, giroa berotzen  
hasia da. Hala izan ohi da gertaera histori-  
ko garrantzitsuak gogoratzeko uneak iris-  
ten direnean. Dena den, giroa hasiberri  
den urte politikoarekin berez berotuko  
zen bestela ere, Urriaren 1eko segidak gatazka eta arazo  
politikoa bere horretan utzi baitzituen. Ikasgai batzuk  
ere utzita, hori bai; hala nola, Kataluniako herria zer  
urruti joateko gai izan den ikusi dugu (Euskal Herrian  
azken hamarkadotan aldaketa behartzeko izandako pro-  
zesuetan –Aljer, Lizarra-Garazi, Ibarretxe Plana eta 2005-  
2007 negoziazio saioa– ez gara inoiz hain urruti iritsi),  
Katalunian hain urruti iritsita ere zein zaila den ibilbide  
osoa burutzea egiaztatu da, eta Estatu espainolaren izaer-  
a atzerakoia eta basatia zer-norainokoa den agerian gel-  
ditu da, iazko urriaren 3an Espainiako erregeak berak be-  
re hitzekin argi bezain garbi utzi zuen bezala.

Beraz, urteurrenaren garrantzia handia delako eta ga-  
tazkak bizirik segitzen duelako, espero daiteke datozen  
asteetan gaiak berriro ere arre-  
ta handia bereganatzea, sua  
berpiztea. Irailaren hasierako  
lehen adierazpenek ez dute bes-  
terik iragartzen. Halere, sinple-  
keria hutsa litzateke pentsatzea  
aurreko urteko errepikapen  
moduko bat datorrenik, ordutik  
hona zenbait gauza aldatu bati-  
ra, ez nolanahikoak gainera.

Bistakoak dira alderdi inde-  
pendentisten arteko ezberdin-  
tasunak eta tirabirak; egindakoari buruzko irakurketa-  
ren, egoeraren balorazioaren eta eman beharreko  
urratsen gaineko ezberdintasunak. Zer eta nola egin, az-  
ken batean. Seguru asko alderdi bakoitzaren interesek  
ere zeresan handia dute. Ezin daiteke baztertu beste fak-  
tore bat ere: errepresio basatiaren eragina. Sektore ba-  
tzuentzat errepresioa aurrera egiteko motibo bada ere,  
beste batzuetan beldurra eragin du. Jasotako sufrikario-  
ak eragin politikoa izan du hainbatetan.

Espainiako Gobernuan ere aldaketa izan da. Sanche-  
zek ukitu berri bat eman nahi izan dio bere jokabideari;  
lehenik elkarriketa aipatuz eta ondoren nolabaiteko  
proposamen politiko bat eginez. Erreferenduma izango  
da, baina soilik autogobernuri buruz, ez autodetermina-

zioari buruz. Batzuk zen besteak entzunda ez dirudi ate-  
rabidea lortzeko ezer mamitsurik eta eraginkorrik pro-  
posatu duenik. Ez da inor hurbildu ere egin estatutu be-  
rri horrek jaso beharko lukeena aztertzeraz. Adibidez,  
nazio aitortza eta erabakitze eskubidea jasoko balu,  
biderik ba al legoke “zero puntu” berri bat jartzeko? Hain  
zuzen ere, horixe da EAEko Legebiltzarrean gehiengoak  
adostu duena proposamen berri bat egiteko. Horiek dira  
Euskal Herrian azken negoziazio prozesuetan puzzlea  
osatze mahaia gainean egondako pieza nagusiak. Bai-  
na, antza, Katalunian eztabaida ez da hori.

Katalunia eta Euskal Herria, Euskal Herria eta Katalu-  
nia. Ezberdintasunak ezberdintasun, bi prozesuak sin-  
kronizatzeko beharraz mintzatu da azkenaldian ezkerre-  
ko euskal independentismoa. Bigarren frontearen ideia,  
laburbiltzearen. Estrategiaren oinarri bat litzateke. Ha-  
lere, herri honetan, ezkerreko independentismoak estra-  
tegiaren eztabaida ekinbide politiko praktikoarekin eta  
gizarte bideratu beharreko mezua nagusiekin nahastu  
ohi ditu. Adibide batekin ulertuko da beharbada hobeto:

Ezker independentistak zer den  
estrategiaren eztabaida eta zer den  
zabaldutako beharreko mezua hobeto  
bereizi beharko lituzke

Urkulluren estrategia herri honen pultsu politikoa ma-  
kaltzea izan da urteotan, baina ez da jendaurrean irten  
herri honek taupada galdu behar duela esateko. Ezker in-  
dependentistak zer den strategiaren eztabaida eta zer  
den zabaldutako beharreko mezua hobeto bereizi behar li-  
tuzke. Zer egin behar den eta nola egin behar den, azken  
batean. Beharbada, ezker abertzalean 2009-2011 artean  
estrategia aldaketarako burututako ariketak eta 2015-  
2016 artean Abian prozesuarekin emandako astinaldiak  
aipatu joera hori indartu zuten. Aurrerantzean, ordea,  
bigarren fronte hori benetan egituratu nahi bada, ekin-  
bide eta eskaintza politikoak, aktibazio eta ekarpen so-  
ziala eta ideien borroka izan beharko ditu osagai nagusi,  
estrategiaren azalpen teorikoa baino gehiago. •



**G**ure aitona-amonen baserrietan ardi artilez egin-dako koltxoiak zeuden. Haien gainean hartzen zuten atseden. Izarak kenduz gero, begiez erraz sumatzen ziren artilearen irregulartasun naturalak. Eta goxotasuna azalean. Dudarik gabe, gaurko koltxoiekin zerikusirik ez zuten. Noizean behin, koltxoiak hustu, artilea astindu eta harrotu egiten zuten, jarraian koltxoa berriro betetzeko. Etxeko ardiek ematen zuten artilea, haien ilea ere oso baliagarria zen garaian.

Horretan ere gauzak asko aldatu dira. Garai bateko koltxoiak eta alfonbrak desagertu egin dira, beste material batzuekin ekoizten dira egun, gehienak urruneko herrialdeetan, exotikoagoetan. Hala, ardiaren artilea baserrietan diru iturri izatetik, ia arazo iturri izatera pasa da, gastua baino ez delako gaur egun. Ardiei ilea moztu egiten zaie banan-banan, bildutakoa (kiloak eta kiloak) jaso egiten da eta hori modu zehatzean kudeatzen da azkenik. Hondakin gisa tratatzen da gainera, konpostatzeko aukerak gero eta ugariagoak izan arren.

Egoeraz jabetuta Latxa Esne kooperatibak, Ekolber ikerketa zentroak eta Neiker-Tecnalia Nekazaritza Ikerketa eta Garapenerako Euskal Erakundeak indarrak batu dituzte Arabalanda, Bizkaimendi eta Landaola EAE-ko landa garapenerako elkarrekin. Lakuak lankidetzarako ematen dituen laguntzaz babestuta, ikertzeari ekin diote. Helburua, ardi latxaren artilea aprobetxatzeko irteerak bilatu eta horietan sakontzea. «Irteera egonkorra» eman nahi zaio ardi



## BIZITZA LUZEA ARTILEARI

Ardi latxaren ileari gaur egun ez duen irteera emateko proiektua abian da

 **ABELTZAINZA** / Oihane Larretxea de la Granja

Ardi latxak ematen duen esnea diru iturri da baserrietan. Artilea ere hala zen, baina kontsumo usadioek alboratu egin dute. Hori irauli nahian, Latxa Esne kooperatibak, sektoreko elkarrekin batera, irteera berria eman nahi dio. Soka biodegradagarriekin saiakerak egiten ari dira; lehen proben arabera, ate interesgarriak ireki daitezkeela dirudi.

latxa artaldeek ematen duten artile bolumen osoari.

Latxa Esne kooperatibatik aurreratu dutenez, lehen ikerketek soka biodegradagarri eta konpostagarrietan sakondu dute, gero baratze, lorategi eta negutegietan erabiltzeko, adibi-

**Legazpiko Artzain**  
Egunean ardiei ilea nola  
mozten zaien erakutsi  
zuten.  
Jaizki FONTANEDA | FOKU

dez. Lehen prototipoak egin dituzte, baita probatu ere. Emaitzen arabera, eta hasierako fasean egon arren, pentsatzekoa da bide onetik doazela.

Oso ezaugarri bereziak ditu ardi latxaren artileak: keratinan oso aberatsa da eta disolbagarri-

rik gabe tratatu daiteke. Horrek abantaila ugari eskaintzen ditu.

Mariano Imaz, Latxa Esne kooperatibako presidentea izateaz gainera, artzaina da. Jaio zenetik izan ditu ardi latxak bere inguruan, bizileku zuen baserrian.

Itxaropentsu begiratzen dio ireki daitezkeen aukera berriei, garai batean diru iturri zena diru iturri izatera bueltatu dadin. Pena da, dio, ilea bezalako materia bat deuseztatzen den bezala deuseztatzea. Gaizki kudeatzen den hondakin gisa, gainera.

Dioenez, batez beste, ardi baikoitzak bi kilo ile ematen ditu. Bota kontuak. «Garai batean diru iturri oso-oso garrantzitsua zen artilea familietan. Oroitzen naiz, umea nintzela, neguan baserriak sortzen zuen gastuaren





Galtzerdiak, txanoak, txalekoak... ikusi ohi dira gure azoketan. Ardi artilearen aukerak, ordea, askoz zabalagoak izan daitezke.  
Jaizki FONTANEDA | FOKU

zati handiena ilea salduz irabazitakoarekin ordaintzen genuela. Pentsa, garai haietan kilo bakoitzeko 100 pezeta ordaintzen ziren!», gogoratu du.

Alfonbrak eta koltxoiak egiteko saltzen zioten ekoizleei artilea baserritarrek, baina, denboraren joan-etorriarekin, irteera komertzial hura eten egin zen eta gauza haiek beste modu batean eta urruneko lekuetan egiten hasi ziren. Portugal hornitzaile garrantzitsua zen, baina usadioek hori ere eten zuten.

Garai batean ardi batek ematen zuen ilearen truke 100 peze-ta ere ordaintzen baziren, egun artzainak ilea mozteagatik euro bat eta erdi ordaindu behar dio hori egiten duen profesionalari. «Eskulana ordaindu egiten da, eta, jakina, artzainak berak asumitzen du kostuaren %100a».

Gaur egun ilea «inork» nahi ez duela penatuta, hori guztia biltzeko Euskal Herriko eskualde ezberdinetako nekazaritza

garapen agentziak egiten ari diren lana aipatu du. Biltegiak sortu dituzte, baserritarrek gutxienez ilea non bota izan dezaten. Garraioa da, hain zuzen, beste arazo bat. Horrek ere artilearen kudeaketaren prozesuan gastua suposatzen du.

#### ARAZO IZATETIK AUKERA IZATERA

Gaur egun «arazoa» dena «aukera» bihurtu nahi du Imazek eta, berak bezala, proiektu ho-

## ARTILE BILTEGIA IREKI DUTE BEASAINEN

Behin-behinean soilik irekita egongo bada ere, Goierrik martxan du dagoeneko ardi latxa artilea jasotzeko biltegia. «Artilea latxa arrazako gure artaldeei lotutako produktua izan da betidanik eta era batera edo bestera erabili eta saldu izan da beti. Gaur egun, ordea, oso zaila da artilea erosiko duenik topatzea. Dena dela, sektorea artilearekin Ikerketa eta Garapeneko proiektu desberdinak aurrera eramaten ari da uneotan», azaldu du

Goimen Goierriko landa garapenerako elkarteak.

Bilgunean artilea soilik utz daiteke, ontziratu edo lotu gabe, hau da, zakutan sartu edo sokaz lotu gabe, prozesatzea zaila delako bestela. Bildutakoa, konposta egiteko erabiliko da. Artilea irailaren 15era arte utz daiteke soilik; ondoren, bilgunea kendu egingo dute. Bilgunea Beasaingo Salbatore auzoan, Iturralde-txikiko industrialdeko zelai batean, kokatu dute.

netan murgildu diren elkarteek. «Momentuz fase esperimentalean baino ez gaude, ez gara prozesuaren bukaerara iritsi, baina uste dut emaitza interesgarriak lortuko ditugula, momentuz lortu duguna hala delako».

Soka biodegradagarriak negutegi batzuetan erabili dituzte, proba gisa. Gauzak bide onetik doaz. «Gure ardi latxaren ileak oso propietate onak eta bereziak ditu, keratinan oso aberatsa izateaz gainera, nitrogeno ugari dauka, eta hori oso onuragarria da negutegietan lantzen diren produktuetarako eta lurrerako», azaldu du.

Prozesuan sortutako arazok edo zailtasunak gainditzea ez da nahikoa sustatzaileentzat. Garrantzitsua da lortzen duten produktua, egitasmoa bera, «ekonomikoki sostengarria izatea», dio Imazek, etorkizuna bermatze aldera. Egun gastua den hori artzainarentzat diru iturri bilakatzea da xedea, garai batean bezala. Horrek egingo du denboran sostengarria, neurri handi batean.

Iaz, EAEn, 700 tona ile bildu ziren. Badago zerekin lan egin, badaude aukerak. Eta bezeroak ere ez dira falta, estimatzen dutenez. «Eskaera egon bada», dio, Almeriako hainbat negutegietatik interesa iritsi zaiela baieztatu du Imazek.

#### IKERKUNTZA, GAKOA

Ekolber ikerketa zentroa ari da laborategian probak egiten. Artilea oinarri hartuta, plastikoko biodegradagarria egiteko beharrezkoa den teknologia-aren garapenera bideratuta dago Bergarako enpresa. Ia duela urtebete jarri zen martxan lan taldea zeregin berri honetan.

Ikerketa zentroan denbora daramate material biodegra-



dagarriekin lanean, Jesus Ollokiegi Ikerketa eta Garapeneko zuzendariak kontatu duenez. «Behien larruaren azpiko aldearekin egiten dugu lan, kolagenoan oso oso aberatsa delako. Larruginak edo larru-ontzaileak kanpoko aldea aprobetxatzen duen bitartean, guri justu azpiko aldeak balio digu».

Gai natural horretatik abiatuta, material berri bat sortzea lortu dute, prozesu kimiko bat jakin bat aplikatu ondoren. Prozesu horretan, beste hainbat ongarri eransten zaizkio produktua are sendoagoa egiteko, nahiz beste ezaugarri batzuk eransteko. Izan daitezke arrautza azalak, kafea... Hau da, guretzat hondakin bihurtu eta dagoeneko etekinik ez duten ongarriak izan ohi dira.

«Nazioarteko bermea duen patente batekin babestu dugu material berri hau. 'Kolagenozko kautxu termoplastikoa' da, eta kautxuaren eta plastikoren pareko jokabidea du», azaldu du. Horregatik, hain zuzen, ere ireki ditzake aukera interesgarriak merkatuan, beste produktu batzuk ordezkatzeko posible egin dezakeelako.

«Artileari dagokionez, zergatik da hain interesgarria produktu honen ekoizpen prozesuan?», galdegin diogu Ollokiegiri. «Artileak indar handia du, erresistentzia. Artileak, erabiltzen dugun behi azalak baino presio gehiago jasan dezake. Eta sortu dugun material berri honek, prozesuan ongarriak eransten zaizkion une horretan, ardi latxaren ilea onartzen du».

Artilearen erresistentziari esker, produktuak ere indartuta ateratzen dira. Haria aipatzen du Ollokiegik. «Orain arte lortu dugunak oso itxura ona dauka, baina egia da plastikozko hariak ordezkatzeko lortzea



**Diru iturri izatetik ardiaren ilearen kudeaketa gastu izatera pasa da artzaintzat. Irteera jasangarria bilatzea da helburua, baita ekonomikoki ere, etorkizuna bermatzeko**

**Momentuz lortu duten soka biodegradagarriak erresistentzia handia du ardi latxaren ilearen propietateei esker, tartean keratina. Negutegi, lorategi zein baratzetan erabil liteke**

Esneaz gain, ardiaren ileari erabateko etekina ateratzea da helburu nagusia. Ez dadila ez gastua ez hondakina izan.  
Jaizki FONTANEDA | FOKU

ez dela gauza erraza izango. Arrantzarako baliatzen den pita kasu. Gure materialak ez du nailonak duen indarra, sekulako gaitasuna baitauka, baina bai ordezkari ditzake baratze, negutegi eta beste landa esplotazio batzuetan erabiltzen direnak. Tomateentzat, adibidez». Almeriako negutegiak aipatzen ditu aukera interesgarri bezala.

Abantaila nagusia biodegradagarria izatean datza. «Imajina dezagun tomate plantazio bat. Tomate bakoitza soka banarekin eutsi badugu, uzta amaitu eta guztia jaso behar denean, hurrengo denboraldiari begira lursaila prest uzteko, ez dugu landarea eta plastikozko soka banan-banan banatzen aritu beharko. Dena kolpez garbitu daiteke, soka ez baita hondakina izango».

Ollokiegiren datuen arabera, EAEn urtean 700 tona artile sortu eta botatzen dira. Nafarroan «are gehiago», dio, «Ipar Euskal Herrian bezalaxe». Eta zenbakiak gutxi gorabehera eginak dituzte: sortuko luketen soka tonako tona erdi artile erabiliko lukete. «2.000 eta 3.000 soka tona artean ekoiztiko bagenu, urtean EAEn botatzen den artile guztia aprobetxatuko genuke».

Oso irteera «interesgarria» izango litzateke, lehenik eta behin, artzaintzat. Probak egitea da kontua. Eta horretan ari direla, behiek apoak zauritzen dituztenean babestu eta sendatzeko pieza bereziekin saiakerak egiten ere ari dira. Animaliek asko sufritzen dute zauriok, infekzio iturri direlako. «PVC edo egurrezkoak izan ohi dira, artifizialak. Kolagenoz egindakoak animalia-arentzat xamurragoak izateaz gainera, naturalagoak lirateke eta biodegradagarriak».



# Galeuska

Antton Izagirre

**K**ataluniako Diada berri baten atarian izateak, festa eta errebindikazio egun batetik haratago, espainiar Estatuaren menpeko nazioak etorkizun hurbil eta ertainerako, ezinbestean, garatzen ari diren, eta behar dituzten, estrategien gainean zer pentsa jarri gaitu. Ezinbestean diogu, Kataluniaren uberan, Euskal Herria eta Galizia ere, norabide berean eta xede bera bilatzen duten nazio-lurralde modura, elkar hartuta jardutera behartuak daudela uste dugulako. Bakoitza bere aldetik, ezaugarri, izate eta historia desberdinetan oina-

rri hartuta baina kateatzen dituen marko politiko beraren menpe katramilatuta daude. Hau da, katebegiak hautsi daitezke alde bakarretik, egingo den indarraren baitan egon daiteke hori, baina entitate nazional berriak aitortzeko aukerak hiru lurraldeentzat baliagarriak izango dira ala inorentzat ez. Beraz, alde horretatik, hiru nazio-lurraldeen artean sor daitezkeen sinergia bateratuak, gaurdanik hasita, epe ertainerako begirada zabaltzea ekarri beharko luke.

Ezinbestean, baita ere, globalizazioa, mundu-ekonomia, mugarik gabeko neo-

liberalismoa ezartzen ari den mundu ikuskera bakarraren aurrean, nazio ikuspegia duten herriek aukera hobeak izango dituzte, asimilazio eta baldintzarik gabeko desagertzeari aurre egiteko.

Espainia edo Frantzia moduko nazio-estatuek, kasurik onenean, onartu dezaketen ezaugarri etniko eta folkloriko edo autonomia mugatuaren aurrean, nazio izaera aldarrikatzea eta xede horren bila politika egitea, jarrera aurrerakoia da; eta ez, unionistek eta post-moderno zenbaitek dioten moduan, joan den mendeko ideologia. •

# Ibilian

Miren Azkarate  
Badiola

**A**steburuan Artikutzan hiru orduko bueltaxka bat emateko aukera izan nuen. Luxua da etxetik gertu horrelako paraje ederretan ibilaldiak egin ahal izatea. Umea bizkarrean jarri motxilan eta tipi-tapa zuhaitz artean isiltasun eta lasaitasunean. Horrelako plazerak geroz eta urriagoak ditugu gure estres bizi-tzetan!

Umearen algara, oihu eta kexaren batek edo bestek besterik ez zuten isiltasuna apurtzen eta bide erdian, loak

hartu zuenean, hantxe hasi zen nire burua kezken artean bidaiatzen. Ezin momentu hori ere lasai joateko probestu!

Esan bezala, plazerez egiten ari ginen txangoa zen: nahi genuenean deskan-tsatu, jatekoa soberan, edatekoa ere, inoren erritmorik jarraitu beharrik gabe... Eta supituki bide hori derrigortuta, janaririk eta edatekorik gabe, haur txikiekin zein handiekin soinean egiten dituzten milaka emakume iheslari eta migratzaile etorri zitzaizkidan go-

gora. Ordu luzez ibiltzen Mendebaldeko herrialdeek sortutako gudetatik ihesi; behin beraien aberastasun guztiak lapurtuta, miseriatik ihesi.

Zertarako eta gure herrialdeetara, “giza eskubideen lurraldera”, laguntza eske, bizitza hobe baten bila heldutakoan gure instituzioek eta gizartearen zati handi batek atea muturren aurrean ixteko!

Nire buruak pentsaketan segitzen duen bitartean nire oinek orbel artean plazerez jarraitzen dute bidea. •





EXPRAI

# iRRITZIA:







Gorka RUBIO | FOKU



## IKUSMIRA

### TXANTXARREKA, GAZTETXE BAT

Gaztetxeak. Hainbat udalen buruhauste. Batzuentzat deseroso, desatsegin; eskuarki, ordena lehenesten dutenentzat. Ordena ezarria -eurei ere ezarritako ordena- lehenesten dutenentzat. Agintarien kontrolpean ez dagoenak nabarmen uzten du horien menpekotasuna. Eta, halaber, hainbat auzoren altxor dira gaztetxeak, arriskuan daudenean -zoritxarrez maizegi gertatzen den arriskuan- auzotarrek erakusten duten bezala.

Irudian ageri dena Txantxarreka da, Donostiako Antigua auzoan dagoena. Beste askok bezala, hainbat jarduera eskaintzen ditu, hainbat ekimen bultzatzen ditu gazteen askotariko mundu ikuskerak agertu eta garatzeko. Eta beste askok bezala, autogestioa oinarri, elkartasuna funtsezko balioa du. Abuztuan, etorkinentzako harrera gunen bihurtu zen, gizarte hobe bat aldarrikatu ez ezik, gauzatura ere, horren ardura izan beharko luketenak nabarmen utzita.

Xabier Izaga Gonzalez



# TABERNARIA EZ DA EROTU

Bezeroen aurrean biluzteko unea heldu da, Telleriak idatzi eta Martinezek antzeztu

📁 KULTURA / Nerea GOTI


**A**spalditik eza-  
gutzen du-  
zun tabernari  
batek egun  
batean gera-  
tzeko esango  
balizu, zer pentsatuko zenuke?  
Eta konprobatuko bazenu ez  
zarela zu konbokatu zaituen  
bakarra, beste ohiko bezero as-  
ko ere badaudela hitzorduan?  
Kañak zerbitzatzen trebea, tra-  
tuan adeitsu bezain diskretua  
izan den horrek asko esateko  
daukala egiaztatuko du ikusle-  
ak. Heldu da barruan pilatuta-  
ko guztia askatzeko une hori  
eta saioaren bukaerara arte ez  
duzu jakingo zergatik egin  
duen.

Trantze horretan murgiltzen  
da Tartean Teatroa konpainiak  
egin eta Loraldiaren laguntza-  
rekin kalean den "Tabernaria.  
Instrukzioak botatzeko ondo  
bat kaña" antzezlana. Patxo Te-  
lleriak idatzi eta zuzendua,  
testuari Mikel Martinezek jar-  
tzen dizkio gorputza eta arima  
publikoaren aurrean. Bakarriz-  
keta da, formatu txikikoa, 30  
minutuko iraupena du eta  
ikusleak oso gertutik biziko du  
tabernariaren arrangura.

Kondentsatu bezain inten-  
tsua, antzezlanak badu beste  
ezaugarri bitxi bat ere, istorioa  
kontatzeko moduari dagokio-  
na. Bizitzan gertatzen ohi den  
moduan, lehenengo begiradan  
ikusten dena ez da beti istorio-  
aren hasiera izaten.

Argiak piztu eta tabernariak  
alde egiten duenean, ikusleak  
aurpegi eta izen errealak jarri-  
ko dizkio seguruenik, eta ba-  
tek baino gehiagok hari en-  
tzundako hausnarketaren bat  
buruan iltzatuta gordeko du.  
Zertzelada bat ematearren, an-  
tzezlaneko tabernaria ez da  
inoiz zoriontsua izan, baina  
txarrena da ez duela inoiz zo-

«Ordu erdiko destape mentala eta sentimentala» da  
Mikel Martinez aktoreak ikuslearen aurrean eskaintzen  
duena. «Tabernaria. Instrukzioak botatzeko ondo bat  
kaña» du izenburu eta Patxo Telleriarena da testua.  
Kontakizuna bukaeratik hasita, intentsitatea areagotzen  
du lanak amaierara (edo hasierara) hurbildu heinean, eta,  
bidean, betiko eta oso gaurko gaiak jorratzen ditu.



riona faltan bota, onartzen  
duenez. Berari buruz Patxo Te-  
lleria obraren egileak konta-  
tzen du «gizon zintzoa» dela,  
hori bai, «agian kontzientzia  
sozial gehiegirik gabea». An-  
tzezlanean, baina, gai ugari jo-  
rratzen dira: lanbidea, frustra-  
zioa, maitasuna, turismoaren  
gorabeherak, lan baldintzak,  
mundu zaharra eta berria...

Patxo Telleriak dioenez, nor-  
beraren sentikortasunaren  
araberakoa izango da istorioak  
utzitako aztarna, edo bakoi-  
tzak «antenak» non jarrita di-  
tuen araberakoa. Baina ikusle-  
aren aurrean jarri den «gizon  
apal» horri «ordura arte zi-  
tuen eskemak jausi zaizkio»,  
zerbait gertatu zaio eta horre-  
gatik «sekulan egin ez duena  
egiten hasi da».

Testuinguru horretan, Mikel  
Martinez aktoreak nabarmen-  
du du batzuetan sumatu duela  
pertsonaiak dioenarekiko  
«onespena» publikoaren arte-  
an, «irribarreak eta samurta-  
suna». Harrera ona izan duela  
antzezlanak dio, nahiz eta sa-  
rri ikusleak «apur bat harritu».

## EZ DA LANBIDE ARROTZA

Tabernari lanbidea ez da arro-  
tza Mikel Martinezentzat. Te-  
lleriak GAUR8ri kontatu dio-  
nez, Mikelek Cafe Bilbaon izan  
duen ibilbide profesionalak  
zerikusi handia izan zuen tes-  
tuaren sorkuntzan, «ofizioa  
berez zetorren». Horren hari-  
ra, Martinezek gaineratu du  
lanbidea gertutik ezagututa  
ere, «tabernari gutxik kontatu-  
ko» lituzketela «hemen konta-  
tzen diren gauzak». Hala ere,  
erraz kokatzen da ikuslea akto-  
rearen azalean, ez delako zaila  
«denok sentitu ditugun gauza  
batzuekin identifikatzea». Ka-  
su honetan, gainera, ohiko pa-  
perak irauli egiten dira, entzu-  
tera ohituta dagoen langile



horrek beste jarrera bat hartu du, eta publikoa da saioaren protagonista isila, mezuaren hartzaile bikoitza, bezero eta ikusle modura.

Bakarrizketa formatua gus-tuko du Mikel Martinez aktore bilbotarrak. Dioenez, publikoaren aurrean jarri behar duenarentzat «zailtasunak» zein «meritua» suposatzen ditu bakardadean aritzeak, «batez ere haria galdu eta berreskuratze-ko beharra baldin bada». Baina «abantaila» bat ere badauka Martinezen ustez: «ikuslea askoz errazago harrapatzen duzu». Ikusle modura ere, «magia berezia» ikusten dio istorio bat kontatzeko era horri. Akto-rearen eta publikoaren arteko komunikazio ariketan nabarmentzen duen beste elementuetako bat hizkuntzarena da, «kasu honetan istorioa euskaraz kontatuta dagoelako».


#### ATZETIK AUERRERAKO KONTAKIZUNA

“Instrukzioak botatzeko ondo bat kaña” dio antzeztanaren azpтитuluak. Bada, hitz joko horrek zerikusi handia du istorioa kontatzeko Telleriak aukeratu duen ordena kronologikoarekin. «Dramaturgo bezala ariketa hori egin nahi nuen. Askotan bukaeran dago giltza, eta, nik, kasu honetan, alderantziz kontatzearen dramaturgia ariketa egin nahi nuen, alderantziz kontatu eta bukararako publikoak amaiera bezala ulertuko zuen zerbait us-tea, nahiz eta istorioaren hasiera izan», azaldu du

Telleriak aipatzen duenez, denbora da istorioaren leitmotiva: «Tabernari honek *slow* estiloa defenditzen du, gauzak astiro egin beharra, arretaz, ganoraz, maitasunez, kaña bat ondo botatzearen dohaina...». Hirugarren arrazoi bat ere ba dago atzetik aurrerako konta-

Ezkerreko orrialdean, Mikel Martinez tabernari paperean, lehen planoan. Goian, berriz, Mikel Martinez bera antzeztanaren beste une batean. Bi argazkiok Bilboko Kafe Antzokiko Kutxa Beltza aretoan ateratakoak dira.

June PRIETO | FOKU



kizuna aukeratzeko: istorioa arretaz jarraitzearen beharra bultzatzea, «puzlea zuk zeuk osatzea, ahalegin mental hori egitea». Horren harira, ariketa horren barruan gauzak ulertzeko prozesua bera eraldatu dutela aurreratu du Telleriak: «Askotan, zerbait geroago ikusiko dugun erreakzioagatik ulertuko dugu».

Antzezlana Cafe Bar Bilbaon estreinatu zen eta azken hila-beteotan espazio ezberdineta-tik pasatu da, azkenetako bat Bilboko Kafe Antzokiko Kutxa

Beltza, Gabriel Aresti euskalte-giak antolatuta. Antzezlana ikusteko hurrengo hitzordua, berriz, Bermeon da, hilaren 13an, Mikroteatro jaialdian. Arrietan, azaroaren 23rako fin-katuta dago saioa.

Antzeztanaren formatuari begiratuta, Mikel Martinezek azaldu du taberna giroan antzeztua izateko pentsatua badago ere, erraz molda daiteke-ela bestelako espazioetara ere. Aretoa girotzeko barra eta ga-ragardo iturria jartzea ala hori bera antzezteka ez da arazo eta,

obra, beraz, espazio eta giro ezberdinetara egokitu daiteke. Hala ere, formatu handiko la-nekin gertatzen denaren kon-trara, «gauza txiki, merke eta antolatzeke errazek» ez dute gurean zirkuitu finkorik, Mar-tinezek dioenez. Telleriaren ustez, zinearen munduan film laburrekin gertatzen den ant-zeko fenomenoaren ematen da formatu txikiko antzeztane-kin. Saltzeko orduan ere, «beti daukate arazo gehiago, baina horrekin jada kontatzen du-gu».

Amaitzeko, aipatu Martinez eta Telleriak aurreratu dute-nez, taberna giroa obra eskain-tzeko egokiena izanik, Tartean Teatroa konpainiako tabernari bitxia Cafe Bar Bilbaora itzuliko dela noiz edo noiz neguan zehar. Horrek, hori bai, «data eta ordutegi egokienekin as-matzea» ekarri beharko du, ta-berna itxi egin beharra izango baitute saioek iraun bitartean.

**Tabernariaren desirak, zalantzak, beldurrak, ezinegonak... eta betiko eta gaurko hainbat gai biltzen ditu 30 minutuko bakarrizketak, publiko bera protagonista isil bilakatzu**

**Tartean Teatroa konpainiaren «Ez dok hiru. Euskal Musikaren benetako istorioa» aurreko lana bezalaxe, honako hau ere taberna giroko espazio eszenikoetarako pentsatuta dago**




**Arantxa Urbe**

Hezitzailea eta Hik Hasi-ko kidea

## Bejondeizuela, Seaska!

**kasturte berrirako Lehen Mailan, Kolegioan eta Lizeoan 230 ikasle berri izango zituztela-eta, Seaska Ikastolen Federazioak 25 irakasle berri eskatu zizkion Frantziako Hezkuntza**

**Ministerioari.** Frantziako Estatuan Hezkuntzan ardura nagusia duen instituzioak, ordea, ez ziola irakasle gehiago emango erantzun zion. Protesta koloretsu eta irudimentsuek, jendeen haserre eta hainbat erakunderen eta politikariren babesek mugiarazi ditu agintari frantsesak, eta, badirudi, azkenean, 5,5 irakasle emango dizkiola. Begiratzen den lekutik begiratzen dela, erantzun eskasa. Bestalde, ikasketak euskaraz egin zituztela-eta, Brebeta (14 urterekin kolegio amaieran egiten den azterketa, Matematika, Historia eta Geografia, eta, iaztik, Zientziak neurtzen dituen) euskaraz egingo zutela erabaki zuten 180 neska-mutilek eta haien etxe-koek.

Bordeleko Errektoretzak euskaraz egindako Zientzia azterketak ez zuzentzeko agindua eman zuen, nahiz eta bazituen probak zuzentzeko prest zeuden irakasle elebidunak. Gainera, ko gaietako probak euskaraz egin eta zuzenduak izan baziren ere, Zientzietakoa blokatu egin zuen Errektoretzak. Antza, legearen azpitik dagoen zirkularrean preseski Zientzia aipatzen ez delako. Honela dio, baina, “Code de L’éducation” hezkuntzaren kodeko L 121-3 II artikulua: «*La langue de l’enseignement des examens et concours, iansi que des thèses et mémoires dans les établissements publics et privés d’enseignements est en français, sauf exceptions justifiés par les nécessités de l’enseignement des langues et cultures régionales*».

Oso estua izango den kultura eta hizkuntza erregionalak irakasteko be-

harraren zirrikitutik pasatzea lortu dute, bada, Seaskakoek. Errektoretzak euskara ez zekiten irakasleei agindu zien Zientzietako azterketa zuzentzea. Eta noski, haiek zenbakiak soilik zuzendu zituzten, idatzizko zatiei tanke-  
rarik eman ezinik. Hamaika ikusteko! Eta hara, hunkiturik irakurri dugu Seaskak egin duen txioa: «Zientzietan nota biziki apala izanik ere euskaraz egiteagatik, gure ikasleen % 100k lortu du Brebeta!».

**Harro egon daiteke Seaska bai bere neska-mutilez bai eta inguruan dituen familiez ere, guztiak eskubide guztien jabe garela esan diguten garai hauetan desobedientziaz eta helburuak lortzeko duintasunez borroka egin beharraz irakaspen bennetan ederra eman baitigute. Bejondeiela!**

Zer nahi duzue. Mapetan marraztu gabe, espazioan biraka dabilzan sa-

teliteek ere aurkitu ez gaituztelarik, artean, bere GPS lokalizazio puntua zelaian marraztu behar duen herria gara!

Frantziako Tourra mundu mailako fenomeno omen da – hori sinestara-  
zi digute munduko latitude honetan, bederen!–. “*You are in the Basque Country*” eta hemen, gure lurrean, “Kasu, ikastolak kexu!” esan diogu munduari.

Astelehenean, irailaren 3an, hasi zen ikasturtea Lapurdi, Nafarroa Behere eta Zuberoako heziguneetan. Seaskak 25 irakasle behar ditu, besteak beste, ez daitezen 40tik gora ikasle izan geletan, eta elbarritasunen bat duten haurrek baldintza duinetan ikas dezaten.

**Seaskako familia handiak borrokan jarraituko du, besteak beste, beren seme-alabek euskaraz ikastea nahi dutelako. Hori besterik ez! •**



Seaskako ikasle, guraso eta irakasleek borrokan jarraituko dute.

Bob EDME | MEDIABASK



{ koaderno } **Nerea Ibarzabal**

# Errailariak eta burutsuak

**T**radizioak zalantzan jartzearena da azken urteetan barruak gehien mugitu dizkidan kontua. Beno, orokorrean, zalantza egitea bera iruditzen zait nahikoa lorpen. Baina tradizioena bezain lur emankor, labainkor, kontraesankor, interesgarriak... gutxi daude. Tripetatik egiten dugulako berba tradizioak defendatzen ditugunean, urteetan zeharreko errepikapen koreografiatua hartuz gure argudio nagusitzat, ia bakartzat. «Horrela egin izan da beti». Eta bere errai odoltsuak eta familia liburua eskutan hartuta mintzo denari, zelan erantzuten zaio burutik eta hostasun erlatiboz?

Denok sentituko ginen bi aldeetan noizbait, errailari edo burutsu. Deserosoa da hori. Ni, esaterako, burutsu naiz zezenketen kasuan, sokamuturrarenean, antzarenean, ahari-jokoenean... animaliak gure ikuskizunetan erabiltzearen aurka nago, ez nuke nire dirurik erabiltzerik nahi horrelakoak ordaintzeko, injustua iruditzen zait eta ez dut hau publikoki adierazteko inolako arazorik. Baina bat-batean albiste bat irakurtzen dut, “Zornotzako idi-probak egiten jarraitu edo ez erabakitzeako erreferenduma eskatu dute”, eta artxiboko irudian nire aita ageri da, akuilua eskuan, baina izan zitezkeen nire bi aitona, nire osabak, nire lehengusak, nire lehengusina. Orduan norbait erraietatik tiraka baneuka bezala sumatzen dut.

Baina ze kristo, pozik egon beharko zenuke erreferendumarekin, ezta? Orduan zer da sentitzen duzun hau? Oraindik “Gurean” dokumentala ikusi ez izanaren arrazoia al da? Zure familia osoa gaiztoen paperean ikustearen beldurra, nahiz eta zuk gauza bera leporatzen diezun ezkutuan? Zu izan zinen txikitari Azkoitiko probalekuan sekulako eskandalua eratu zuena idiak odoletan zeudelako, zergatik sentitzen zara arraro orain antiespezistak pankartekin doazenean

bertara? Agian agerian uzten dutelako barru-barruan nahiago duzula idi-probak herri-kirol erresidual bilakatzea betirako desagertzea baino, gutxitu daitezela baina iraun dezala zure familiaren urteetako ahalegiaren frogak. Zure anatomiako zein tolesduratan ezkutatzen da buruaren mezuei entzungor egiten dien emozio zahar hau!

Ahalko bagenu emozio hori laborategiren batera eraman eta zatitu, deseraiki, aztertu, Euskal Herriko arazo asko konponduko genituzkeela iruditzen zait. Tradizioek badute botere hori, pertsonak nongo sentiarazteko, noren, nor; geure mundu ikuskeraren zati hori galtzeak beldurra ematen digu, tradizio zapaltzaileak izan arren, matxistak izan arren, faxistak izan arren, sinesen ez dugun erlijio baten inposizio izan arren. Baina puntu honek aspaldi gainditua behar zuen.

Errai odoltsuak pisutsuak dira, baina ez dira argudio bat, familia ere ez, ezta historian zeharreko errepikapen hutsa ere, eta gutxiago –gaur bezala– jokoan plaza publikoan egoteko eskubidea dagoenean

Zu ere burutsu izaten dakien errailari bat bazara, aztertu ezazu ukitzen zaituen tradizio hori, eta bustitzea inongo asmorik ez baduzu, gutxienez txalotu itzazu tradizio horri aurre egiten diotenak, ausartu direnak. Errai odoltsuak pisutsuak direlako, baina ez direlako argudio bat, familia ere ez delako argudio bat, ezta historian zeharreko errepikapen hutsa ere, eta gutxiago –gaurko egunez bezala– jokoan plaza publikoan egoteko eskubidea dagoenean, edo beste bizidun batzuen sufrimendua. Ondorengoen eskutan tradizio biziago bat, osoago bat, gusturago zainduko duten zerbait uzteko modu bakarra eboluzionatzea da, lotsatzeko arrazoi bat gehiago jaso ez dezaten. •



**B**ertsolari” aldizkariko udako zenbakian jakin dugu ezezaguna zitzaigun Txirritari buruzko pasadizo bitxi bat: bertso batzuk idazteagatik auzipetu eta kondenatu egin zuten 1916an. Mikel Taberna idazleak horri buruz hitz egiten zuen kronika bat topatu eta hariari tiratzea erabaki zuen.

**Nola hasi zen guztia?**

Ni 2015eko urrian nire amaren ahaide baten berri bilatzen ari

nintzen prentsa zaharrean. Amaren osaba bat herri mailako bertsolaria zen eta Afrikako gerrara eraman zuten; bertan hil egin zuten, 1921ean. Gure familiak bazekien haren aipamena prentsan egina zutela noizbait; antza, berarekin gerran egondako Etxalarko beste bertsolari batek aipatu zuen prentsan nola haren lagun bat hil egin zuten Espainiak Afrikan zituen kolonietan. Jakin nuen nire ahaidea aipatu zuen Etxalarko bertsolari hura Ixiar Rozas idazlearen aitona zela, eta honek luze eta zoragarri

idazten duela “Beltzuria” liburuan bere aitona pasadizo ez. Horiek horrela, nire senitartekoaren aipamen hori bilatzen ari nintzen Iruñeko Udal Artxiboan, bertako langile Ines Roldan laguntzaile nuela. “Diario de Navarra”-k bere artxiboa digitalizatuta dauka 1903tik, eta, *versolari* hitzarekin bilaketa egitean, 1916ko urriak 31ko zenbakian epaiketaren baten kronika agertu zen.


**Zer esaten zuen kronikak?**

Kazetariak aipatzen zuen akusatuen aulkian bi pertsona

*«Esku artean nuena Txirritaren aurkako epaiketaren kronika mamitsua zen eta zur eta lur gelditu nintzen hura irakurrita, zerbait badakidalako bertsolari zaharrez eta horren inguruan ezer ez nekielako»*

zeudela eta horietako bat zela «Chirritak, bertsolari ezaguna». Kronika mamitsua zen eta zur eta lur gelditu nintzen hura irakurrita, zerbait badakidalako bertsolari zaharrez eta horren inguruan ezer ez nekielako. Begiratu nuen ea epaiketa horren inguruan zerbait idatzita zegoen eta inon ez zen ageri. Aspaldiko berri zaharra, baina berri-berria zen gaur egun!

Tomas Alcaine Legasako bizilaguna, Txirritarekin batera epaitua izan aurretik, beste epaiketa batean ere egon zen, Eusebio Babaze alkateak sala-





# «Harrigarria zait Txirrita epaitzea eta kondenatzea eta ia inon ez agertzea»

tuta, 1913an. Norbaitek alkateari dinamita kartutxoa jarri omen zion eta honek Alcaine eta beste bi lagun salatu zituen. Ez zen kondenarik izan ez zelako frogatik aurkitu. Gerora, Alcainek Txirritari bertso batzuk enkargatu zizkion alkatearen kontra. Bertso-paperak Doneztebeko jaietan saldu zituzten, 10 zentimotan. Babaze iraindua sentitu zen eta biak eramane zituen auzitara, bertso enkargatzailea eta bertsoegilea.

Gerora, jakin dugu Alcaine Errepublikaren aldekoa zela, baita 1936an lekuko gisa deklaratu zuela Donamarian izandako krimen ikaragarri batengatik; emakume bat eta sei seme-alabak leize batera bota zituzten.

## Abokatuen artean eztabaida egon omen zen.

Akusatu bakoitzak bere abokatuaren zuzenbidea erabiltzeko erabaki zuen. Epaileak euskaraz ez zekienez, bertsoak gaztelarara itzuli zituzten bi itzultzailek, eta hark gaztelarazko bertsiotik oinarri hartuta epaitu zituen akusatutakoak. Kronikaren arabera, Txirritaren abokatuak esan zuen bi itzulpen desberdin zeudela eta epaileak ezin zuela ondorioz atera baldin eta itzultzaileak ere ados jartzeko gai ez baziren. Alcaineren abokatuak, ordea, esaten zuen bere defendituak ez zuela kulparik, alkateak egin zion kaltea salatu nahi izan zuela baina ez zituela gauza horiek erredaktatu; hau da, bertsolariak bere agindua ez zuela behar bezala ulertu eta maltzurkeria ere erabili zuela, hortaz, alkatea minduta sentitu bazen ez zela enkarguaren errua, bertsoak egin zituenarena baizik.

Sumarioak 196 orri zituen nonbait, baina agiri gehienak falta dira. Badugu sententzia, 14 orrikoa, baina falta ditugu

hasierako urratsei dagozkien agiriak, lekukoen testigantzak eta epaiketako xehetasun gehiago; beraz, ez dauzkagu abokatuen argudio zehatzak, bakarrik kronikan kazetariak aipatu zituenak. Faltza den material horren guztiaren artean jatorrizko bertsoak daude.

Epaiketa egin zuten, epaia atera zen eta errekurtsioa jarri zuten, eta horrekin Auzitegi Gorenera iritsi ziren. Madrilgo Auzitegi Gorenak Iruñeko epaia berretsi zuen. Harrigarria da Nafarroako Artxibo Nagusian zein Auzitegi Gorenean galdetuta ere ez dugula informazio gehiago lortu. Ez dakigu zer gertatu zen. Garai batean papera falta zenez, birziklatu egiten zuten eta agian hori da arrazoia.

## Nola amaitu zen kontua?

Bi delitu egotzen zizkieten: injuriak eta kalumniak, baina azkenean bakarrik injuriengatik kondenatu zituzten. Zigorra zen deserriratzea 3 urte eta 7 hilabetez, Legasatik 25 kilometrorara gutxienez, eta 500 pezetako isuna gehi prozesuko kostuen erdiak, bien artean ordaintzeko. Akusatuek esan zuten insolbenteak zirela, ez zutela ez ondasunik ez dirurik. Tomas Alcaineri lanerako erabiltzen zituen azientak bahitu zituzten, baina Txirrita ez zuten aurkitu. Berarentzat deserriratzea ez zen oso larria, Legasatik 25 kilometrorara baino gehiago zegoelako bere ohiko bizilekua, esan badaiteke Txirritak ohiko bizilekua zuela, batetik bestera ibiltzen baitzen. Baina isun ekonomikoa ordainarazten saiatu ziren.

1917an iritsi zen kondenaren berrespena, eta hortik aurrera Txirrita non ibili zen aztertzen saiatu gara. Konturatu gara 1916tik aurrera badagoela hari

buruzko informazioetan parentesi bat. Hurrengo erreferentzia 1922an aurkitzen dugu, Leitzako jaietan. 1918an bertso batzuk idatzi zituen, Gerra Handiari buruz [Lehen Mundu Gerra]; Frantziaren aldekoak dira eta guka aritzen da, bera frantsesa izango balitz bezala. Aita Zavalak, Txirritaren lan ugari aztertu dituen ikerlariak, bertso horiei buruz esan zuen bitxia zitzaiola modu horretan idaztea. Legasako epaiketa nola izan zen jakinda, gure hipotesia da Txirritak muga pasatu zuela kondenaren berri izan zuenean eta bolada bat Iparraldean pasako zuela.

## Aipatzen duzu abokatuak ezagunak zirela.

Auziko abokatuak gerora ospetsu bilakatu ziren. Txirritaren abokatuak Gabriel Iziz Bueno izan zen. Bere ahaideek badakite ospetsua zela jende xumea eta langileak defenditzen zituelako eta bereziki zailak ziren kasuak hartzen zitu-lako. Antza aurrerakoia zen, ez dakigu zehazki alderdi politikoren batekoa ote zen, baina 1936ko estatu kolpea eta berehala harrapatu eta hil egin zuten. Bertze abokatuak, Alcainere-na, Fernando Arvizu Aguado zen. Legelari familia batetik zetorren, aita eta anaia ere legelariak izan ziren eta biak Iruñeko alkate izatera iritsi ziren. Goi mailako estatusa zuen familia zen. Bera hautatu zuten Espainiako Kode Zibilaren foru eranskina idazteko eta Nafarroako zuzenbideko hainbat lan ere argitaratu zituen. Egun ere badira legelariak ha-ren ondorengoen artean.

Akusazioaren abokatuak ere ospetsua zen. Manuel Aranzadi Irujo zen, Lizarrako abokatu eta politikaria, bi aldiz Madrilgo Gorteetako diputatua

# MIKEL TABERNA

## IDAZLEA

Afrikako gerran hil zuten ahaide baten bila

zebilela, ezagutzen ez zen Txirritari

buruzko informazio harrigarria aurkitu

zuen Mikel Tabernak: bertsolari ezaguna

Legasako alkateari buruzko bertso batzuk

idazteagatik epaitu zuten 1916an.

Nagore Belastegi Martin



izan zena, Eusko Ikaskuntza-ren eta “La voz de Navarra” egunkariaren sortzaileetako bat. Bi itzultzaileak ere oso ospetsuak ziren; Joxe Agerre Santesteban, kazetari eta politikaria, eta Jenaro Larratxe Agirre, euskaltzale ezaguna eta Iruñeko alkate izatera iritsi zena.

Beraz, aurkitu genuen kronika hura garrantzitsua zen guretzat alde batetik Txirritari buruzko informazio berria zegoelako, eta, bestetik, oso pertsonaia inportanteak agertzen direlako handik eta hemendik. Agian horrek ere eragingo zuen “Diario de Navarra”-n halako kronika landua argitaratzea, baina harrigarria zait beste ezer ez aurkitzea. Joxe Agerre Santestebanek astero zutabe bat idazten zuen garai hartan “Diario de Navarra”-n eta hala ere ez zuen honi buruz ezer idatzi. Horrek erakusten digu bertsolaritzak ospea zuela herri xehearentzat, eta beste mailako jendearentzat ez zuela halako garrantzirik.

**Gazteleraz berreskuratutako bertsoak euskaratu dituzue, ezta?**

Ni ez nintzen ausartu bertsoak euskaratzera, eta “Bertsolari” aldizkarikoek Miren Ibarluzea bertsolaria proposatu zuten. Bertsio eder bat egin du, hamalau bertsoak itzuliz. Zalan-tzak izan zituen Txirritaren estiloa eta euskara erabili edo ez, eta azkenean erabaki zuen ez zuela horrela egingo.

**Jatorrizko bertsoak non bilatu dituzue?**

Originalen bila ibili gara Nafarroako Artxibo Nagusian, Guardia Zibilaren Artxibo Historikoan, Auzitegi Gorenean, Espainiako Administrazioaren Artxibo Orokorrean, Koldo Mi-



Idoia ZABALETA | FOKU

txelena Kulturuneko Txirritaren funtsen gordailuan... eta ez dugu aurkitu ez bertsorik ez kasuari buruzko aipamenik ere. Bestalde, jendeari ere galdetu diogu. Lehendabizi Legasan, eta bertan bai aurkitu dugu kasuaren berri zerbait entzuna zuen jendea, baina kontatu digutena ez da zehatza eta bertsorik ez dakite. Urroren ere galdetu dugu, Iturenen, Donamarian, Narbarten... eta ez dugu aurkitu horren berri emanen ligukeen inor. Horrek ez du esan nahi ez

dagoenik. Norbait gehiago bilatzera animatzen bada, guregatik zoragarri. Ez dut itxaropena guztiz galdu nahi, pentsatu nahi dut noizbait agertuko direla bertsoak. Jende gehiagorekin hitz egiteko intentzioa badugu jatorrizko bertsoak aurkitzen ditugun arte. Uste dut interesgarria litzatekeela Txirritaren biografia osoago bat egitea.

**Bertsolaritzak zer-nolako garrantzia zuen garai hartako gizartean?**

Txirrita ordurako jada bertsolari ospetsua zen jende xehearen artean, eta hura epaitzea eta kondenatzea eta ia inon ez agertzea harrigarria da. Gaur egungo ikuspuntutik pentsaezina litzateke.

**Txirrita hain garrantzitsua izanik, egungo zein pertsonarekin konparatuko zenuke?**

Txirrita Lujanbio zen, eta norbait parean jartzearen, gaur egungo Lujanbio jarriko nuke egungo bertsolari ezagunen taldean dagoelako. Txirrita

«Legasan aurkitu dugu kasu honen berri zerbait entzuna zuen jendea, baina kontatu digutena ez da zehatza eta bertsorik ez dakite»



goi-goian zegoen bere garaian, eta gaur egun goi-goian dauden artean Maialen Lujanbio dago, nahiz eta bi pertsona oso desberdin izan.

**Bertsolaritzan interesa al zenuen gai hau aztertzen hasi aurretik?**

Ni bertsolaritzaren munduan nahiko sartua ibili izan naiz. Beti izan naiz bertsozale, eta bereziki Nafarroako bertsolaritzan sartua egon naiz. Euskal kulturaren adierazpide ezagutu beharrekoa da. •



# «AUZOAN JOKOZ KANPO»

## Judimendiko gazteek auzoan ireki duten joko aretoaren eragina ikertu dute

📁 JENDARTEA / Ion Salgado

**G**asteizko Olagibel kalean dagoen joko aretoa «ez da prezio baxuak

eta musika alaia dituen taberna atsegina, jokoaren normalizazioa baliatuz, gutxien daukagunoi menpekotasuna sortu eta daukaguna lapurtzearen ondorioz dirutza irabaztea helburu duen lokala baizik». Horixe da Judimendiko Gazte Asanbladak argitaratu berri duen txosten baten ondorioetako bat. Argitaratutako lanak «Auzoan jokoz kanpo. Joko aretoaren inguruko hainbat argipen» du izena eta 2017ko azarotik 2018ko martxora bitartean egin zuten auzokideen laguntzarekin.

«Ireki zutenean ikusi genuen ludopatia sortzen zuela joko aretoak. Ez genekien zer eragin izango zuen auzoan, ezta nola eragingo zigun gazteei ere», azaldu du Ion Uriarte Judimendiko Gazte Asanbladako kideak. Egoera berriari aurre egiteko, gazteek ikerketa bat habian jartzea erabaki zuten. «Fase ezberdinetan antolatu genuen. Hasi ginen inkestak egiten auzokideei, tabernariei eta baita joko aretoko lankide ohiei ere. Eta gero behaketak egin genituen. Lokalera joan eta bertan pare bat ordur egoten ginen, lasai-lasai», nabarmendu du.

Lanaren ondorioetan agertzen denez, auzokideek jokoa gizarte arazo bat dela uste dute, «batez ere, gazteoi eta helduei eragiten diguna». «Jokatzea, dirua jokatzeko zein makinetan jokatzeko, gaizki ikusita dago auzokideen artean. Judimendiko auzotarrek arazo bat bezala ikusten dute, gero eta jende gehiagok joka-

Gasteizko Judimendi auzoko Gazte Asanbladak egindako txostenaren ondorioetan agertzen denez, joko aretoak herritarren menpekotasuna bultzatzea du xede. «Ez da prezio baxuak eta musika alaia dituen taberna atsegina, jokoaren normalizazioa baliatuz, gutxien daukagunoi menpekotasuna sortu eta daukaguna lapurtzearen ondorioz dirutza irabaztea helburu duen lokala baizik».

tzen baitu», azaltzen dute Gazte Asanbladatik, makinak bezeroengan menpekotasuna sortzeko eginda daudela ohartaraziz.

### BEZERO GAZTEAK

Bezeroei buruz, txostenean diru iturri baxuko bezero ugari daudela nabarmentzen da. «Auzokide askok tabernatzat hartzen dute, baina ugariak dira ere jokoan aritzeko hurbiltzen diren bezeroak», azaltzen da txostenean, eta adin tarte guztietako bezeroak joaten direla nabarmentzen da, «baita 18 urtetik beherako gazteak ere». Hurbiltzen diren gehienak gizonezkoak direla ere azpimarratzen da. «Gazte eta etorkin kopuru handiak biltzen direla nabarmendu behar da. Horiek ohiko jokalaria dira», dio Gazte Asanbladak.

Gazteen presentzia nabarmentzen da batik bat ikerketan: «Langile ohiek zein joko aretoa gertutik ezagutzen duten bezeroek helarazi bezala, gazte asko bertaraten dira jokatzeko asmoz -18 eta 35 urte bitartekoak batez ere-, gizonenezkoak gehiengoa izanik». Eta, dirudienez, gazteen artean, taldean jokatzeko ohitura dago. «Apustu txikiak egiten dituzte hainbat lagunen artean, eta joko aretoan denbora ugari ematen dute aisialdiaren parte bezala. Inkestek diotenez, jokoak gazteengan eragin kaltegarria dauka eta jokoarekiko menpekotasuna geroz eta nabariagoa da».

Eta joko aretoak eragina du auzoan bertan ere. Izan ere, Judimendiko Gazte Asanbladak egindako ikerketan azaltzen denez, «Olagibel kaleko tabernetan eragin kaltegarria izan du batez ere, joko aretoen kate handien prezio baxuei eta ordutegi zabalariei aurre egitea





oso zaila baita. Auzoko bi taberna itxi behar izan dituzte».

Gazteek honela azaltzen dute egoera: «Lokaleko atean jarritako agiri batean ikus daitekeen bezala, astean zehar 06.00etan irekitzeko eta 01.00etan ixteko lizentzia dauka joko aretoak, hala ere, ordutegia ez dute betetzen. 05.00etan zabaltzen dute eta 03.00etan itxi, eta asteburuetan ere gauza bera gertatzen da. Sukaldariak 03.00ak baino lehen heltzen dira; eta aretoa 03.00etatik 05.00ak arte soilik ixten dute. Bi ordu horiek garbitzeko erabiltzen dituzte, eta une horretan bezeroak jokatzen ari badira, barruan gelditzeko aukera ematen diete».

LANGILEEN BALDINTZAK

Langileen baldintzei dagokionez, «joko aretoan lan baldintza prekarioak» dituztela azaltzen da txostenean. «Batetik, tabernari laguntzaile kontratuak sinatzera behartzen dituzte, baina, gero, tabernarien eginkizun berdinak dauzkate. Eta kontratuetan zehaztutako orduez aparte, ordu estrak sartzen dituzte, nahiz eta askotan ez dizkieten ordaintzen. Bestetik, kontratuan sinatutako soldata ez diete esandakoan ordaintzen. Hilabete hasieran kobratu beharko luketen arren, atzerapenarekin egiten dute beti eta langileak ibili behar dira euren soldata exijitzen».

«Lan baldintza kaskar hauen ondorioz langile askok taberna uztea erabaki dute, eta, gaur egun, lan bera egiteko hasieran kontratatuta zituzten langileen erdia dituzte kontratatuta. Gainera, jasaten duten kontrola ikaragarria da. Izan ere, lokal guztia kameraz beteta dago, bezeroak eta langileak kontrolatzeko. Azkenik, langile



Aurreko orrian, Judimendin ireki duten joko aretoaren argazkia. Goian, Ion Uriarte Gazte Asanbladako kidea. Jaizki FONTANEDA | FOKU

emakumezkoek behin baino gehiagotan jasan behar izan dituzte bezeroen jarrera matxistak, emakume izate hutsagatik», diote ikerketan Gazte Asanbladako kideek.

Halaber, joko aretoaren irekierak auzoan kontrol soziala «areagotzea» ekarri duela diote: «Hainbat auzokideren esanetan, joko aretoaren inguruetan liskarrak gertatu dira, eta, aitzakia hori erabilita, presentzia poliziala handitu dela ikusi dugu. Gainera, ondoriozta dezakegu presentzia hori han-

ditzeak ez duela auzokideak kontrolatzeaz aparte bestelako helbururik, izan ere, jakin badakigu droga trafikatzailerak ibili izan direla tabernan eta inguruetan euren negozioak egiten lasaitasun osoz».

«Judimendiko Gazte Asanbladak eraikitzen duen auzo bizitza ereduarekiko guztiz kontrajarria da joko aretoak ordezkatzeko duena: enpresa handia, langileen esplotazioa, harreman inpertsonalak, jokoak eragiten duen menpekotasunaren ondorioz ematen den


bezeroen zapalkuntza, taberna txikiei konpetentzia desleiala, kontsumoan, indibidualismoan eta menpekotasunean oinarritutako eta batez ere mutil gazteei zuzendutako 'aisialdi eredu' berria...», salatzen dute txostenean. «Honen aurrean auzokideok daukagu hitza, eta Judimendiko Gazte Asanbladak argi dauka berea: joko aretoa auzoan jokoz kanpo!», ondorioztatzen dute gazteek.

Etorkizunera begira orain lana auzoan zabaldu nahi dutela azaldu du Ion Uriartek Gazte Asanbladako kideak. Txostena zenbait tabernetan eskuragarri dago, eta beraien helburua da datozen hilabeteetan gaia lantzea. Elkarte ezberdinekin hitzaldiak emateko prest daude eta Azpeitiko auzokideekin ere harremanetan jarri dira egindako lana partekatzeko, izan ere, udan zehar joko areto baten irekieraren aurkako protestak izan dira bertan.

**Gazte Asanbladak egindako lanean jasotzen denez, Judimendiko auzokideek jokoak «gizarte arazo» bezala ikusten dute, eta kezkatuta daude «gero eta jende gehiagok» jokatzen duelako**

**Joko aretoko langileek «lan baldintza prekarioak» dituztela salatzen da gazteek argitaratutako txostenean: ordaindu gabeko ordu estrak, soldata kobratzeko atzerapenak...**





Jokin Espilla, Gasteizko Errementari kalean. Endika PORTILLO | FOKU

# infraganti JOKIN ESPILLA

Berriatuko mendizale arabar honek ondo ezagutzen ditu Euskal Herriko mendiak. Abuztuan, ordea, apur bat gorago igotzea otu eta Elbrus mendiko gailurra zapaldu zuen. 63 urteko gizon bat hil zen han bi egun lehenago; Jokinek 71 ditu. 5.642 metroko altuera hartan, euskal presoak gogoan, sentitu zuen asebetetasunaz mintzatu zaigu.

**M**endizalea. Beticanik eta betiko. Jokin Espilla Barruetabeñak ondo ezagutzen ditu Euskal Herriko mendiak, eta ohikoa da bertoko

mendi martxetan, baina noizean behin mendi urrunago eta garaia gotara joatea ere gogoko du. Joan den hilean Elbrus igo zuen, Europako altuena. 5.642 metroko altuera hartatik itzuli eta oporretara joan zen. Gasteizera iritsi baino lehen, jarrita geneukan hitzordua, bere az-

ken abenturaren berri eman ziezagun. Luze jardun dugu horretaz eta beste hainbat kontuz. Luze eta, egia esateko, gustura.

## ARABA ETA MENDIA

“Jokin Espilla, Manuel Iradier elkarteko kidea, Xebe Peña saria jaso duen lehen arabarra”, irakurri genuen duela bost urte. Euskal Mendizale Federazioak antolatzen duen mendi martxen zirkuitua egiten dutenek lagun bat aukeratzen dute urtero, Xebe Peña garaikurra emateko, bere mendi ibilbidearen aitortza gisa. Hogeitik gora martxa ditu zirkuituak, eta horietatik zortzi egin behar dira gutxienez: Hego Euskal Herriko herrialdeetan, bana; Ipar Euskal Herrian, beste bat, eta edozein herrialdeetan, beste hirur. Horiek egiten dituztenak sarirako finalistak izaten dira. Hautagai dira eta, aldi berean, boto bidez garaikurraren jabe zein izango den erabakitzen dute denen artean.

Garaikurra jaso zuen lehen arabarra esatea zuzena al den galdetu diogu Jokini. Zalantza egin gabe, baietz diosku. «Arabak ordura arte ez zeukan horren irabazlerik», dio. Berriatuan jaio zela gogorarazi diogu. «Bai, baina mendizale arabarra naiz. Bizitza erdia baino gehiago Araban daramat». Izan ere, bere 71 urteetatik 43 inguru eman ditu Gasteizen.

Bertan geratzeko erabakia hartzeko, besteak beste, Arabako mendiak erakarri zutela dio. Bizitzako osagarri garrantzitsua da mendia Jokinentzat. Oso gaztetatik hasi zen mendira joaten. Batez ere Bizkaian eta Gipuzkoan ibilitakoa zen Gasteizera joan arte, Lekeitio, Markina, Mutriku eta inguru hartako lagunekin, eta Arabako pagadiak, hariztiak, mendiak... ikusi zituenean, txundituta gel-

ditu zela dio: «Baina... zer da hau?». Euskal Herrian Arabako mendiak ezezagun samarrak direla dio. Gogoan du nola hasi zen mendi horiek eta herrialdea ezagutzen. Semea Duranako ikastolan hasi zenean, eskolaz kanpoko ekintzetako bat mendia zen, bost urtetik aurrerako umeentzako eta gurasoentzako mendi taldea, irailean hasi eta ekain bukaera arteko egutegia zuena.


1970eko hamarkadan bi urte eta erdi ihesean ibili zen, eta Franco hil eta gero, 27 urterekin, Araban suertatu zen, herrialde hori politikoki sendotu egin behar zela uste baitzuten. Ez zuen bertan finko gelditzeko asmorik, baina gogoko izan zuen eta «hemen nago, gustura». Edonola ere, beti izan du, badu, lotura estua Berriatuko eta Ondarroako familiarekin eta lagunekin. «Hemengo egin da, han *‘patatero’* esaten digute», dio barrez –eta harro–.

## EZKERTIA

Jokin ezkertiarra ez ezik, ezkertia ere bada, ezinbestean. Beste-rik ezean, alegia, 45 urterekin lan istripu batean eskuineko besoa galdu aurretik eskumatia zen eta. Besoa galdu eta berehala hasi zen koaderno batean idazten ezkerrarekin ohitu arte, eta orain, dioenez, ezkerrarekin letra hobea egiten duela esaten diote lehen eskuinarekin baino. Galdakaoko Ospitalean zela, besoa galdutako kantabriar batek bisita egin eta esan zion bizi-modu normala egingo zuela. Berak, istripua gertatu berri, mendira joan ere ezingo zela esan zion, eta lagun hark erantzun zion: «Ezet? Ni ganadua- rekin ibiltzen naiz mendian!».

Laster hasiko zen bera ere mendian zehar ohitzen, oreka berria bilatzen, beso bakar- rekin ibiltzeak sortzen duen





«Han lazeria handienak eta euforiarik handienak pasatu ditut», dio Espillak Elbrus mendiko espedizioa gogoan. Endika PORTILLO | FOKU

euste-puntu eta segurtasun falta gainditzten. Oraindik ere gabezia sumatzen du, baina ez da kexaren zale, oztopoak gainditzekoa baizik, eta ez adinak ez besoaren faltak ez diote galarazten martxarik gogorre-nak egitea, Hiru Handiak edo zenbait egunetako espedizio-ren bat kasu. Urrunera gabe, iaz, Gasteizko zenbait lagune-kin Tubkal mendira joan zen. Mendi hori Atlas mendikateko altuena da, 4.165 metrorekin.

ASMO ZAHAR BAT

Aurten erronka handiago bati heldu dio, Elbrus igotzea, hain zuzen. Orain dela zenbait urte-ko asmo bat gauzatzeko modua izan da. Bere seme Oierrek kar-rera bukatu zuenean, biek Hi-malaia aldera joan behar zutela esan zion, trekking bat egitera, 4.000 edo 5.000 metroko al-

tueran, Annapurnan, Manas-lun edo Everesten. Asmo hori nolabait zahartu egin zen, urte-ak igarota. Eta halako batean biei egun batzuetako txangoa egiteko aukera sortu zitzaien Jokinen lagun Imanol Berozen bidez; gainera, trekking bat ba-rik, tontor erakargarri bat egite-ko aukera zuten: Europako gai-lurrik altuena, elurtzan... «mendigoizaleontzat ezaugarri bereziak dituen erronka». Joki-nen semea ez zen horrelako mendietan ibilia, baina eskala-tzailea da eta zailtasun tekniko-ak gainditzeko prestatuta dago; edonola ere, ohituta dago aita-rekin martxa gogorrak egiten.

Imanol Beroz doneztebarra iaz egon zen Elbrusen, baina ez zuen gailurra zapaltzerik lortu. Mendi hartan, 30 gradu zero azpitik eta aurrera egin ezinik zegoela, bideo bat bidali zion

Jokini. Itzuli zenean, Imanolek esan zion berak ere egin zeza-keela mendi hori, ez baitu apar-teko zailtasun teknikorik. Fisi-koki ondo prestatuta egotea eskatzen duela, baina teknikoki posible zutela.

Eta Iruñeko agentzia batek antolatuta, abuztuko es-pedizioa apuntatu zi-ren, beste bi euskaldune-kin eta Estatu-ko beste zazpi lagunekin ba-tera. Euskal Herritik, Ima-nol Beroz eta Espillaz gainera, honen seme Oier eta Oskar La-sa etxarriar pilotari ezaguna jo-an ziren. «Bi nafar eta bi ara-bar», dio Jokinek.

**Euskal Herritik, Imanol Beroz eta Espillaz gainera, honen seme Oier eta Oskar Lasa etxarriar pilotari ezaguna joan ziren Elbrusera. «Bi nafar eta bi arabar», dio Jokinek**

**Gogoan du euskal presoen aldeko ikurra goi hartan atera zuenean sentitu zuen zirrara: «Momentu horretan sentimenduak eta morala gehitu egiten dizkizu»**

Espedizioa abuztuaren 1etik 13ra artekoa izan zen. Abiatu zi-ren egunean, 21:00etan, Baraja-sen geratuak ziren guztiak. Imanol Beroz Hondarribian bi-zi denez, handik atera zen bere furgonetarekin, bidean Etxarri Aranatzen Oskar Lasa espedi-zioko bigarren euskalduna eta Gasteizen Jokin eta haren seme Oier hartzeko. Madrilera abiatu ziren arratsaldean. Barajasen gainerako espediziokideak eza-gutu zituzten: Eugenio madril-darra, Francisco alacantarra, Angel sevallarra, Vetra eta Joan bartzelonarrak, Angel murtzia-rra eta Zeben kanariarra. 23:30ean Moskura bidean ziho-azen, hegazkinez, eta goizeko zortziak baino lehen beste he-gazkin bat hartu zuten, Kabar-dia-Balkaria Errepublikako Mi-neralnye Vody hirira iristeko. Handik, autobusez, Kaukasoko Baksan haranera. Han, 2.200 metroko altueran zeuden, El-brusetik hurbilago, baina lan gogor guztia eginkizun.

Zenbait eguneko aklimata-zioa egin zuten inguruko men-dietan, ibilbide luze eta altuera handikoak. Zortzigarren egune-an beheko kanpalekura aldatu ziren, lau egunen buruan ton-

torra zapal-tzeko xedea-rekin. Egun horretan lau mila metrotik gorako altue-rara iritsi zi-ren, eta, Joki-nek dioenez, Elbrus men-diko gailurre-ra heltzea ez zela erraza izango suma-

tu zuten. Zalantzak sortu ziren. Abuztuaren 11n, 03:30ean, 3.750 metroko altueran zegoen kanpalekutik gailurrerantz abiatu ziren. Lehenago atera-



tzea pentsatuta zeukaten, baina eguraldi kaskarrak ez zien utzi. Hala ere, aurreikuspenen arabera, goizean «leiho bat zabaldu» behar zuen, eta bideari lotu zitzaizkion espedizioko zazpi kide, tartean lau euskaldunak, eta gidari bi. Espedizioko kide batek oxigeno gutxi zeukan odolean eta behera itzuli zen. Beste hiru ere ez zeuden oso ondo eta beldar ibilgailuan igo ziren ia 5.000 metroko altueraraino, bide erdia baino gehiago oinez egitea saihestuta. Odoleko oxigeno faltagatik, hain zuzen, bi egun lehenago 63 urteko gizon bat hil zen bertan. Jokinek, baina, ez ditu 63 urte, 71 baizik eta hara baino lehen erabakia zuen gutxienez ahalegiak egingo zituela.

«Mantso-mantso», esfortzu ikaragarria eginda, lehenengo izerditan eta gorago hotz ikaragarria igarrita, 11 orduren buruan gailurra zapaldu zuten.

Arrisku handiena amildegibaten ertzetik igo beharreko tarte batean zegoela dio Jokinek. Segurtasun kable bat zegoen, eta bertara lotzen zuten arnesa. Pioleta ere derrigor eraman behar zuten. Jokinek, besobakar, ezin zuen eskuzorroa atera arnesa lotzeko, eta une txarrak pasatu zituen. Hala ere, gidarietako bat horretaz konturatu eta haren aurrean jarri zen; atzean, berriz, Oier, Jokinen semea, «eta ni horrela seguru sentitzen nintzen», nabarmendu du.

Beste momentu batean, haitze zakar ikaragarria hasi zuen eta «orduan ez beldurrik ez ezer, buruan hura gainditzea besterik ez zegoen. Momentu nahikoa gogorra pasatu genuen».

#### GIZA HARREMANAK

Horrelako egoeran, batere erosotasunik gabe, esfortzu han-



Elbruseko gailurrean, euskal presoek ikurra haizatzen. GAUR8



Gailurrera bidean. Bigarrena, Jokin. GAUR8

diak egiten, higadura fisiko eta mental handiarekin, jarrera positiboek eta negatiboek taldean duten eraginaren garrantziaz mintzatu zaigu Jokinek. Mendiak dauzkan zailtasunak taldean sortzen direnak baino errazago gainditzeko direla dio. Jokinentzat ez da zaila hamar ordu edo gehiagoan mendian

ibiltzea. Beste batzuk, berriz, prestatuta daude denbora gutxiagoan baina oso modu trinkoan jarduteko. Horren araberrako pentsaera desberdinak ateratzen direla dio; esate baterako, aklimatazioari dagokionez. Jokinek dio konfiantza izan beharra dagoela antolatzailerekin eta gidariengan.

Argi utzi nahi du, edonola ere, oso ondo moldatu direla. Espe-rientzia bizia izan da, «han lakeria handienak eta euforiarik handienak pasatu ditut». Izan ere, oztopo guztiak gainditu eta gero gailurra lortzea itzela dela dio. «Zeure buruari hainbeste exijitu eta gero ezbehar eta oztopo guztiak gainditzeko gauza

izan bazara, oso asetze handia hartzen duzu».

#### PRESOEKIKO KONPROMISOA

«Konpromiso bat» zeraman Jokinek aldean: euskal presoek aldeko ikurra. Baita ikurrina eta Nafarroako eta Manuel Iradier Elkarteko banderak ere. Hurrenkera horretan. Ez zuten denbora asko izan tontorrean argazkiak egiteko, zero azpiko 20 gradu eta 80 kilometro orduko haizea ez baitira baldintza onenak egonean gelditzeko. Horregatik, atera zuten lehen ikurra presoena izan zen, «badaezpada ere». Lehenetsitako xedea zen. Gogoan du ikur hori goi hartan atera zuenean sentitu zuen zirrara: «Ez pentsa, une horretan sentimenduak eta morala gehitu egiten dizkizu». Ondoren beste hiru banderekin atera zituzten argazkiak.

Mendia denbora-pasa baino gehiago du Jokinek. Une zailak gogoratzen ditu, besoa falta baino lehenagokoak ere bai, garai estresagarriak, politika, sindikatua, beharra, dena semea jaio berritan... Okiara joan eta hango pagadietan ibiltzea zuen terapia onena. «Andrea ere ezagutzen nau eta urduri edo ernegatuta ikusten nauenean, esaten dit: zoaz mendira!»

Gaur Alberto Zerain mendizale handia zenari omenaldia egingo diote Gasteizko mendietan. Bertan izango da Jokin, nola ez. Omenaldia ekainean egitea zegoen aurreikusita, Gure Esku Dagok giza katea erraldoia gauzatu zuen egun berean, eta atzeratu egin zuten. Gauza polita iruditzen zaio Jokini ekimen hura kontuan hartzea.

Jokin Espillak badaki zertxobait mendiaz, badaki bizitzaz. Eta lagunez. Haiei galdetu besterik ez dago. •

Xabier Izaga Gonzalez



**Maite Oronoz Anchordoqui**

EHUko Donostiako Informatika Fakultateko irakasle eta ikerlaria

## Informatika eta formazio transbertsala

**Informatikaria izanik, aspaldidanik nabil hizkuntzalariekin elkarlan estuan. Ikerketa taldea, IXA taldea, hain zuzen ere, diziplina anitzetan prestatutako kideekin osatua dugu:**

**informatikariak, fisikariak, hizkuntzalariek, itzultzaileak, filosofoak...**

Euskaraz, gazteleraz, ingelesez idatzitako testuak “ulertu” nahi bagenituen, formakuntza ezberdina dugun kideen arteko elkarlana ezinbestekoa zen. Elkarri ulertzea hasieran ez zen erraza izan. Gaur egun, gure ikerlarien artean “letretan formakuntza” duten kideek programatu egiten dute, eta, “zientzietan formakuntza” dugunok, berriz, hizkuntzaren inguruko oinarri batzuk baditugu. Formakuntza ez genuen transbertsala izan, baina oinarri hori lortzera iritsi garelakotan gaude.

Internet, sare sozial, mugikor, azken finean, datuez inguratutik bizi garen honetan, gero eta ohikoagoa da zeharkako trebakuntza edo formakuntza transbertsalaren eskaera. Eta hezkuntza-programak, unibertsitatean adibidez, horretara doaz. Ikasleek ez dute diziplina bakarra lantzen, hainbat ikasten dituzte eta modu horretan, formazio transbertsala, diziplina artekoa, lortzen dute.

Zeharkako trebakuntzarekin lotura duen adibide bat ikusi dugu dagoeneko. Hizkuntzaren tratamendu automatikoan aritzen diren hizkuntzalariek, *chatbot*-etan erabiltzen den hizkuntza azter edo sor dezakete, itzulpen automatikoaren garapen eta hobekuntzan lan egin dezakete edo sare sozialetan erabiltzen den hizkuntza azter dezakete sentimenduak identifikatzeko, besteak beste. Hizkuntza oinarrian duten tresna horietan guztietan, ikasketa automatikoan

edo programazioan aritzen diren filologoak guztiz beharrezkoak ditugu.

Matematika beti egon da informatikaren atzean. Matematikak informatikarekin duen harreman zuzen hori, ordea, argi eta garbi azaleratu da azken urteotan. Datuak ditugu edonon, kopuru eskergan, aldakortasun handiarekin (datu konplexuak) eta neurrian azkar handitzen direnak. *Big data* horiek datuen zientzialariek, maiz matematikariek, lantzen dituzte patroiak bila. Datu kopuruaren hazkunde izugarri horrek sare neuronalen erabilera arrakastatsua ekarri du, eta, sare neuronalak eta ikasketa sakona deiturikoa ulertzeko, oinarri matematikoak guztiz ezinbestekoak dira. Zibersegurtasunean dugu, datu-enkriptatzean zehazkiago, matematikaren eta programazioaren ezkontzaren beste adibide argi bat.

Datuen jabetzaren eta erabilera ezegokiaren kontuak, informatikaren eta zuzenbidearen arteko harreman

zuzenera garamatza. Errazago ikusten dugu diziplina horien arteko erlazio hori, adibidez, zoritxarrez sare sozialetan sortu ohi diren jazarpen kasuetan. Informatikariok legeen ezagutza sakona izan beharko genuke eta legetariek informatikaren munduaren ezagutza. Bi mundu horiek uztartzen dituen formakuntza ere, garrantzitsua bihurtzen ari da.

**Informatikak beste hainbat alorrekin duen lotura zuzenaren adibide batzuk besterik aipatu ez baditut ere, asko geratu zaizkit aipatu gabe (irakaskuntza, aisialdia eta bideojokoak, industria 4.0...).** Argi dago, nire ustez, gure ingurune digitalizatuak trebakuntza profil aberatsak eskatzen dituela. Lan-munduak gero eta gehiago eskatzen ditu algoritmo, teknika informatiko eta datu mota ezberdinetan hainbat alorretan eta hainbat hizkuntzatan lan egingo duten emakume eta gizonak. •



IXA taldeko kideak, 2013an Anton Abbadia Saria jaso berri.

Gorka RUBIO | FOKU



# BEHATXULOTIK

Juantxo EGAÑA



GERMAN ELORZA. EUSKADIKO ARTXIBO HISTORIKOA

## ATHLETICEN LEHEN AUTOBUSA

Gaur egun ezagutzen dugun liga txapelketa 1928/1929 denboraldian sortu zen. Hurrengo bi denboraldietan Bilboko Athletic txapeldun izan zen eta, halaber, lau kopa ere irabazi zituen jarraian 1930 eta 1933 artean. Hasieran jokalaria zuri-gorriek desplazamenduak trenez egiten zizuten. Urte batzuk igarota, baina, autobusa erabiltzen hasi ziren, artikulua ilustratzen duen irudian ikusten denez. 30eko hamarkadako da argazkia, eta jokalaria eramaten zituen autobusa klubaren egoitza zaharraren aurrean ageri da. Autobusa Txori Gorria izenarekin ezaguna izan zen urte askoan. German Elorza (1910-1983) Gasteizen jaio eta Bilbora bizitzera joan zen argazkilaria da irudiaren egilea. Kazetari grafiko gisa lan egin zuen beti, "La tarde" egunkariarentzat lehenik, eta, 1937an Bilbo erori ostean, frankistek sortutako "Hierro" egunkariarentzat.





BIDAIA ALDIZKARIA

# 7haizetara

DAGOENeko ZURE KIOSKOAN SALGAI



## TORRES DEL PAINE

### Munduaren amaieran oinez

Txileko Patagoniako parke nazional honek trekking egiteko makina bat aukera eskaintzen ditu. Guk, uda australaren iritsierarekin, bi osatu ditugu, O eta W izenez ezagutzen diren klasikoak.

**Eta gainera:** Amboseli zerutik ikusita • «Ruska», alegia Finlandiako udazken magikoa • Hego Koreako arrain azoketan bazkaltzen • Emporda Behereko lasaitasun mediterraneo...

HARPIDETU • 11 ALE 15€ URTEAN  
[WWW.ZAZPIHAIZETARA.COM](http://WWW.ZAZPIHAIZETARA.COM)

1,5€  
7haizetara

ZURE BIDAIA ALDIZKARIA  
EUSKARA HUTSEAN

